

UNICEF: 62 milioi hurrek berehalako laguntza behar dute 71 herrialdetan > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Euskal Bidea, bertute asko eta zenbait arazo IÑAKI ALTUNA > 3

2015eko otsailaren 7a | VIII. urtea • 403. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ALDARRIKAPENA IRUDIMENEZ JANZTEN DENEAN

OLENTZEROZ, GIRALDILLAZ EDO MAILLOT
HORIAZ GURE MUGAK ZEHARKATU ETA
NONAHI ZABALDU DUTE PRESOK EUSKAL
HERRIRATZEKO BEHARRA. IRUDIMENAZ
SAMURTUTAKO URGENTZIAZKO
ALDARRIKAPENA. > 12 Ander GILLENEA

UNICEFen arabera, 62 milioi haur laguntza behar larrian daude 04

Malak, estatu «demokratiko» baten lotsa 09

Irudimena eta desobedientzia, aldarrikapenaren osagai 12

Salam boxeo taldea: aurreiritziak nokeatu eta integrazioa sustatu 19

E.lkarrizketa: Juan Antonio Urbeltz, folklorista 22

In fraganti: Oskar Beriain 28



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Egiatzko kapitalismoa

10 **Oier Gorosabel:** Mina desaktibatzen ikastea

11 **Iñaki Altuna:** Euskal Bidea, bertute asko eta zenbait arazo

18 **Unai Iturriaga**

22 **Gaizka Amondarain:** Joko zelaia

23 **Garazi Goia:** Noiz den une egokia eta hormak

27 **Saioa Iraola:** Eman pausoa

27 **Joxean Agirre:** Psikologia positiboa

31 **Ander Izagirre:** Selfikrazia



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Egiazko kapitalismoa

Egunerokoan murgilduta ibiltzen gara. Gure gorroto, nahi eta gure harrikadekin kontent. Askotan gure mundutxotik harantzago ez dugu ezer ikusten, kabestrua edukiko bagenu bezala. Zaila izaten da albo batera jartzea eta beste ikuspegi batetik gauzei begirada bat botatzea; ikusten ez duguna ikustea. Edo ikusten dugun hori besteei erakustea. “Nightcrawler” pelikularen egileak hori lortu du: gure gizarteari begirada sakon eta kezkgarria botatzea.

Film horren argumentua nahiko sinplea da: protagonistak gauean zeharkatzen du hiria gertaerak grabatzen. Zenbat eta morbosagoak irudiak, orduan eta hobeto. Horiek lortzeko bidean, protagonistak ez du inolako mugarik errespetatzen. Hala ere, hori baino interesgarriagoa iruditu zait protagonistak bere negozioa nola kudeatzen duen ikustea. Enpresa gestionatzeko edozein liburuk esaten duen moduan aritzen da. Oso argi gelditzen da filosofia hori protagonistaren eta bere soldatapeko langilearen arteko harremanetan. Negoziazioak ekonomiako manualek esaten duten modukoak dira. Kontratatzeke garaian, bere burua saltzeko eskatzen dio, langilea saiatzen da, baina uste sendorik gabe. Gazte horrek soldata bat behar du bizi ahal izateko eta hori lortzeko edozein gauza egiteko prest dago. Protagonistak badaki hori horrela dela, baina hala ere negoziazio simulazio hori egiten du, manualak dioen moduan, azkenean huskeria bat ordaintzeko.

Lanean, protagonistak etengabe eskatzen dio enpresan gehiago inplikatzeko, arazoan aurrean soluzio berriak emateko; ez bere zereginak betetzea soilik, baizik eta ekarpenak egitea proiektu komunari. Langileak apenas kobratzen du eta jakina entusiasmo handirik ez du jartzen. Nagusiak esaten dio aldiro baloratuko dutela lanaren hobekuntza, baina balorazio hori ez da inoiz iristen. Gero eta argiago gelditzen da formaren ikuspuntutik negoziazio aske bat dagoela, baina funtsean langileak ez duela inolako negoziazio ahalmenik. Momentu batean gauzak aldatzen dira eta langileak indar posizio batetik ekiten dio negoziazioari, ustez nahi duena lortzen du, baina azkenean hor bukatzen da beraien arteko harre-

mana. Negoziazio libre eta askean baino elkarren arteko xantaian oinarritzen da bien arteko harremana; hori bai, oso ondo apainduta ekonomia arloko hizkerarekin.

Telebista katearekin antzeko zerbait gertatzen da. Normalean irudiak saltzen ditu eta kateak ezartzen du prezioa. Gutxi gorabeherako kopurua finkatzen du, lortu dezakeen ikusleen kuotaren arabera. Erreportaje mamitsu batekin agertzen den egunean, berak bakarrik lortu duena, orduan erabat aldatzen da negoziazio egoera. Momentu horretan protagonistak botere posizioan ikusten du bere burua eta berak egindako materiala erosi ahal izateko drakoniak baldintzak ezartzen dizkio kateari. Jakina, telebistak onartzen ditu puntu guztiak, irudi horietan interes handia duelako. Oso agerian gelditzen da merkatu baldintzetan lortzen dena ez dela kalitatezko produktu bat, beste inork ez duen produktu bat baizik. Araudirik gabeko testuinguruan benetan di-

Harreman pertsonaletan filosofia berberari eusten dio protagonistak. Dena truke bat besterik ez da. Truke horretan beste pertsonaren puntu ahulak bilatzen ditu eta horiek erabiltzen ditu, gupidarik gabe

rua eta indar posizioa ematen duena monopolio bat izatea dela. Eta horretara bideratzen dituzte beraien indar guztiak telebista kateek eta berri biltzaileek, batere kezkarik gabe gainera.

Harreman pertsonaletan filosofia berari eusten dio protagonistak. Dena truke bat besterik ez da. Truke horretan beste pertsonaren puntu ahulak bilatzen ditu eta horiek erabiltzen ditu, gupidarik gabe. Beste harremanetan erabili duen xantaia estrategia bera errepikatzen du. Merkatuaren filosofia hori nahikoa du protagonistak bere bizitza antolatzeke eta “arrakasta” lortzeko. Pelikulak aurrera egin ahala burutik eginda dagoela gero eta argiago gelditzen da, baina ez hainbeste protagonista, pertsonaia horrek pertsonifikatzen duen kapitalismoa baizik. Egiazko kapitalismoaren deskribapen ezin hobea eta bel-dugarria. •

UNICEF-EN DEIALDIA

62 milioi haurrek berehalako laguntza behar dute 71 herrialdetan

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

Gatazka armatuen edo beste-lako larrialdien ondorioz, arriskuan dauden haurrei lagundu

ahal izateko aurten 2.700 milioi-tik gora euro beharko dituela ohartarazi du UNICEFek. Helburua, mundu guztian zehar hainbat krisi egoera humanitarioetan arriskuan dauden 62 milioi haurrengana iristea da. 2015eko ekintza humanitariorako txostenaren aurkezpenean ohartarazi zuenez, inoiz egin den «diru laguntza deialdirik handiena da». Pasatu den urtearekin alderatuta, mila milioi dolarreko igoera suposatzen du.

«Gatazka larriak, hondamendi naturalak edo kutsakorrak diren epidemiak pairatzen dituzten haurrek krisi humanitario berriei aurre egin beharko diete. Titularretan agertzen badira ere edo isilpean badaude ere, gizartearen baitan sortu diren hausturek, aldaketa klimatikoak eta gaixotasunek min handia egiten diete haurrei. Ez dugu inoiz halakorik ikusi. Egungo egoerak ez du aurrekaririk», nabarmendu zuen Afshan Khan-ek, UNICEFeko Larrialdietarako Programen Zuzendariak.

Aditzera eman zuenez, 230 milioi haur bizi dira egun gatazka armaturen bat dagoen eremu edo lurralderen batean.

«Siriatik eta Libanotik etorri berri naiz. Gerrak milioika haurren bizitza urratu du bi herrialde horietan. Azken lau urteetan, heriotza eta indarkeria besterik ez dute ikusi. Heriotza eta indarkeria beraien eguneroko bidelagun bihurtu dira, zoritxarrez. Gutxieneko bizi baldintzak ere ez dituzte», salatu zuen.

2015. urteko Haurrentzako Ekintza Humanitarioaren deialdiaren zatirik handiena Siriara eta inguruko eskualdeetara bideratuko du. «903 milioi dolar beharrezkoak ditugu arrisku egoeran dauden adingabeei gutxieneko laguntza eskaini ahal izateko, hala nola, txertoak, ur hornidura, saneamendu sarea eta hezkuntza», azaldu zuen Khanek. Ebolaren kaltetuentzat, 500 milioi dolar aurreikusten

Siria, Irak, Ukraina, Liberia, Afrika Erdiko Errepublika, Hegoaldeko Sudan... gatazka armatuak eta izurriteak areagotu egin dira eta horiekin batera herritarren beharrak. UNICEFen arabera, 62 milioi haurrek berehalako laguntza behar dute 71 herrialdetan. Horregatik, 2.700 milioi euro eskatu ditu 2015erako.

ditu. «Diru hori infekzio fokuak isolatzeko, gaixoei tratamendu azkarra emateko, kutsatu berriak egon ez daitezen eta jokatibide osasungarriak bultzatzeko egitasmoak martxan jartzeko behar dugu», esan zuen.

Nigerian, milioi bat pertsonak egin dute ihes ipar-ekialdetik, talde armatuen erasoaldia dela eta. Horientzat, 26,5 milioi eskatu ditu. Eta Ukrainari dagokio-

nez, 32,45 milioi dolarreko deialdia egin du, 5,2 milioi pertsona gerra zonaldean bizi dira eta 600.000 herritarrek ihes egin behar izan dute.

«Deialdi honek ahaztuta dauden krisi larriak eta diru laguntzarik jasotzen ez dituzten horiek ere kontuan hartzen ditu. Berehalako laguntza humanitarioa ahalbidetzeaz gain, lortutako diruarekin, UNICEF beste era-

«Ume kurduen hatzak, Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak (UNHCR) Suruc-en, Sanliurfa-n, zabalduko kanpalekuaren hesiari helduta.
Bullent KILIC / AFP

kunde batzuekin elkarlanean arituko da tokian tokiko agintariak trebatzeko, etorkizuna beraien kabuz kudea dezaten».

Khanek berretsi zuenez, «ume ahulenetara» iristeko helburua jarri dute, «edonon daudela ere». «Jaioterriak ez luke inoren patua baldintzatu behar. Oinarrizko zerbitzuak eskaini behar dizkiegu ume eta gazte horiei, etorkizun baketsuagoa eraikitzeko funtsezko tresnak ahalbidetuta. Ziur gaude epe laburreko inbertsioak, epe luzera begira onurak ekarriko dituela», adierazi zuen.

Azaroan izan zen Haurren Eskubideen Nazioarteko Hitzar-menaren 25. urteurrena. «Baina, tamalez, milioika umerentzat hutsaren hurrengoa da, ez du ezertarako balio. Ohean lotan zeuden bitartean edo eskolan ikasten ari zirela bonbardatu dituzte. Bahitu, torturatu edo gerrarako ere hartu. Hondamendi naturalek edo gizakiak eragin-





dakoek arriskuan jarri dituzte beste hainbaten bizitzak 2014an. Kronikoak deritzogun krisialdiek eskasia eta esperantza falta areagotu zuten. Krisi horietako batzuek nolabaiteko oihartzuna izan dute hedabideetan, batez ere, ebolak. Beste batzuek, ordea, ez dute arretarik bereganatu. Horrek ez du esan nahi ondorio mingarriak eta tragikoak eragiten ez dituztenik», ohartarazi zuen Anthony Lake-k, UNICEFen zuzendariak.

«Siriako gerrak bost urte beteko ditu dagoeneko 2015ean. Bertan bizi diren 5,6 milioi haurrek gure laguntza behar dute. Beste 1,7 milioi haurrek Siriatic alde egin dute, inguruetako herrialdeetara bereziki. Urteak daromatxate biolentzia sufritzen eta bortizkeriaren lekuko zuzen izaten. Desplazamendua eta eskasia arrunt bilakatu dira haien-tzat», nabarmendu zuen.

Uztaila eta abuztu bitartean Israelek Gazan egin zituen aire

Siriako bi ume negar batean, matxinoen kontrolpean dagoen Duma eskualdean kokatutako ospitale batean, senda ditzaten zain. Behean, Afganistango emakume talde bat Nazio Batuen babesleku batean, Peshawar-en, otsailaren 2an. ABD DOUMANY A. MAJEED | AFP

eta lur erasoek kalte nabarmenak eragin zituzten 244 ikastetxetan. 25 erabat suntsituta gelditu ziren, eta beste 103 eskola zazpi astez luzatu zen erasoaldian etxerik gabe gelditu ziren 300.000 palestinarrei ostatu emateko erabili dira.

Ikasturtea ofizialki abuztuaren 24an hasi zen arren, ikasle-en gehiengoak ezin izan zuen joan. «Etxera itzuli eta ikasten jarraitzen saiatzen dira, askotan argizari ziztrin baten laguntzarekin, ez baitago argindar nahi-

korik. Izugarria da hain baldintza kaskarretan egonda ere ikasteko duten nahia eta desioa. Harritzekoa bada ere, Gazak eskualdeko alfabetizazio tasarik handienetarikoa du», txalotu zuen Gazako UNICEFen ardura-dun Pernille Ironside-k.

Erakundeak Palestinan duen ordezkariaren, June Kunugi-ren hitzetan, «hezkuntza funtsezkoa da gizarte ororentzat. Hezkuntzan inbertitzea, bakean eta herrialdearen orekan inbertitzea da. Horregatik, behar-beharrezkoak ditugu eraikuntza materialak eta ekipamenduak Gazako eskolak berreraikitze eta konpontzeko». Adierazpen horiek iazko abuztuan egin zituen, ofentsiba militarra bukatu eta egun gutxira. Geroztik ezer gutxi aldatu da.

UNICEFen datuen arabera, Israelen aire, lur eta itsaso erasoaldiek 539 haur hil eta 3.000 bat zauritu zituzten. 54.000 etxerik gabe gelditu ziren, eta 1.500ek gurasoak galdu zituzten. Orotara, milioi bat haurrek pairatu zituzten gerraren ondorioak.

Irakeko Giza Eskubideen ministro Mohammed Mahdi Amen Al-Bayati-k Nazio Batuetako Umeen Eskubideen Batzordearen aurrean aitortu zuenez,

adingabeak erabili izan dira atentatuak egiteko eta sexu esklabo gisa. Estatu Islamikoaren hedapenak egoera okertu du.

Umeen arteko ezkontza behartuak, mutilazio genitalak, desagerarrarazteak eta «ohorezko krimenak» areagotu egin dira Iraken. Bizi baldintzen okertzearen lekuko zuzenak dira, halaber, Mugarik Gabeko Medikuek (MSF).

Biolentziaren ondorio lazgarriak nolabait arintzen saiatzen dira, baldintza arriskutsuetan, askotan. Sinjar-eko probintziatik, Irakeko leku gehienetatik bezala, milaka pertsonak egin dute ihes. Dalal da horietako bat. Sinjarretik alde egin eta gero, Kurdistanen babestu ziren, Zakho herrian.

Dabin City izenez ezagutzen den zazpi pisuko amaitu gabeko etxebizitza gune batean bizi da orain. Guztira, 6.500 lagun babestu dira bertan. Dalal beste 30 seniderekin batera bizi da. Lau logela dituzte guztientzat, seigarren solairuan. Eraikinean ez dago ez urik ez argindarrik. Eta 20 komun besterik ez daude iheslari guztientzat. Zikinak eta moskitoz gainezka. Usaina jasangaitza da.

«Ez dugu leku nahikorik. Ume asko daude eta ez dute non jo-

«Iaz baino mila milioi gehiago behar ditugu Siriako gerragatik, ebolaren pandemiagatik eta gatazka armatuak biderkatu direlako. 2.740 milioi euro behar ditugu guztira»

«230 milioi ume gatazka armatuak pairatzen dituzten herrietan edo eremuetan bizi dira. Horrez gain, ebolaren erruz, 16.700 haurrek gurasoetariko bat edo biak galdu dituzte»





lastu. Ezin ditut eskailerak jaitsi aldakan mina dudalako. Umeak gauez pixa egiteko esnatzen direnean, oso gogorra egiten zait iluntasunean eskailera horiek guztiak jaistea haiei laguntzeko. Nire amaginarreba ezin da zutitu eta hona etorri ginenetik ez da logelatik sekula atera», azaldu zion MSFko boluntario bati urrian eginiko erreportajea.

«PANPINA BAT NAHI DUT JOLASTEKO»

«Ur asko erabiltzen dugu baina ez dakigu edateko ura den ala ez. Ez dugu leihorik, ezta burusirik ere, eta gero eta hotz handiago egiten du. Nola lortuko dugu bizirautea kalefakziorik gabe tenperatura zero gradura jaisten denean?», galdetzen zion bere buruari negua hasi aurretik eginiko adierazpen horietan. «Noiz egongo dira prest kanpalekuak hara joan ahal izateko? Garrantzitsuak al gara

inorentzat?», gaineratu zuen etsita. Kurdistango Dohuk hirian, Malikan-ek ama sendatzea besterik ez du nahi. Hamar urte ditu. Jaioterritik alde egin zutenetik, Dohuk hiriaren hegoaldeko Sharia eremuan bizi da, garai batean eskola izan zen eraikinean, beste 3.000 iheslariarekin. Abuztutik, Dohukeko eskolak itxita daude. Haren ama MSFk kudeatzen duen os-

Debaltseve herriko (Donetsk probintzian) biztanleak autobusez ihesean, otsailaren 1ean.
Manu BRABO/AFP

«Berehalako laguntza humanitarioa ahalbidetzeaz gain, lortutako diruarekin, tokian tokiko agintariak trebatu nahi ditugu etorkizuna beraien kabuz kudeatu dezaten»

Ebola kontrolpean izateko UNICEFek ezinbestekotzat jotzen du komunitateei gaitzaren gaineko informazioa ematea. Horretarako 17.000 boluntario trebatu ditu

pitale batean dago. «Gure etxean aldare bat genuen otoitz egin ahal izateko, baina hemen ez dugu otoitzik egiten. Dena zikina dago, eta bekakua izango litzateke. Faltan botatzen dut eskola, baina momentuz ez dutela zabalduko esan digute, oso arriskutsua baita. Lagunen falta sumatzen dut gehien, batez ere Madeline-rena eta harekin panpinetan jolastea. Hemen ez dut panpinarik, etxean utzi behar izan nituen guztiak. Nahi dudana bakarra ama sendatzea eta jolasteko panpina bat izatea da», esan zuen.

Europako bihotzean ere badi-ra Dalalenak eta Malikanenak bezalako lekukotasunak. Urta-rrilaren 14an, buruko desgaitasuna duten umezurtzentzako etxe bat eraso zuten Ukraina ekialdeko Lugansk eskualdeko Slavyanoserbsk-en. Kalte materialak handiak izan ziren. Bon-

bardaketaren ondorioz, argindarrik gabe gelditu ziren bi egunez.

BABESLEKU TXIKIAK ETA HOTZAK

Donetsk-en, aire erasoetatik babesteko eraikitako babeslekue- tan izan dira milatik gora haur. Hamabi babesleku daude hirian. Tamaina eta bizitza aldatu egiten dira batetik bestera, baina, orokorrean, txikiak eta saneamendu sarrerik gabekoak izan ohi dira.

UNICEFen Ukrainako ordezka- ri Giovanna Barberis-en hitzetan, «Gatazka dela-eta pairatzen ari diren estresa handia da. Sek- tore ahulenak osasunerako kaltegarriak eta hotzak diren soto- etan babestu behar izan dutenak dira, baita kalean bizi diren haurrak edo baliabide gutxiko familietakoak ere». Adin gutxikoak gerratik at uzteko deia berretsi egin zien Ukraina-

ko agintariei eta matxinoei. Nazioarteko komunitateari haur horiei «gutxieneko laguntza» ematea eskatu zion. Norberaren higienarako paketeak banatu ditu erakundeak babeslekuetan nahiz sotoetan bizi diren 1.100 haurren eta helduen artean. Gatazka eremuetan harrapatuta eta egoera ahulean dauden 10.000 umeen artean neguko arropa banatzeko asmoa du. Nazio Batuen arabera, 1,2 milioi haurrek jasan dituzte gerraren ondorioak. Bost urte baino gutxiago dituzten 1,5 milioiek ez dute poliomielitisaren kontrako txertoa jaso.

EBOLAREN TRAGEDIA HIRUKOITZA

Margareta 11 urteko neskato bat da. Gurasoak ebolaz jota hil zitzaizkion Liberian eta, orduetik, 5 eta 9 urteko anaien zaintza bere gain hartu du. «Latzena gertatutako guztia kontatzen zidan bitartean besarkatu ahal ez izatea izan zen. Oraindik gaixotasuna inkubatzeko 21 eguneko epean zegoen eta», ekarri zuen gogora Ebolarako UNICEFeko komunikazio arduradun Laurent Du villier-ek. Izurriteak 16.700 umezurtz utzi ditu 2013ko abendutik hona.

«Tragedia hirukoitza da: aita eta ama galtzea aldi berean, senideen errefusa beldurragatik, eta samina arintzeko norbaiten besarkada jaso ahal ez izatea». Albiste ona: ebola kasuak murriztu egin direla. Du villierren hitzetan, posible da sei hilabete epean kutsaturik ez egotea. «Horrek ez du esan nahi, inola ere, arreta gutxitu behar dugunik. Lanean jarraitu behar dugu, komunitate guztietara iristeko», plazaratu zuen. Behin izurritea kontrolpean izanda, hurrengo erronka ebolak suntsitu dituen osasun, hezkuntza eta babes sistemak berreraikitzea da.

Kutsatzeak murrizteko ezin bestekotzat jotzen du komunitateei gaitzaren gaineko informazioa eskaintzea. UNICEFek trebatutako 17.000 boluntarioek Ebola zer den, nola kutsatzen den eta nola ekidin daitekeen azaldu diete biztanleei. Afrika Erdiko Errepublikan, «umeak hil eta mutilatu dituzte». Komu-

nitate desberdinen arteko biolentziak izua zabaltu du haurren artean.

«12 eta 14 urteko bi gaztetxo ezagutu genituen Bangi hiriburuan. Biolentzian eta nahasmenean murgilduta zeuden, bizi-tzako erreferente guztiak galduta eta ahaztuta. Bata zen bestearen sostengua. Mutilari mugatik gertu jarritako barrikada bat zaintzeko ardura egokitu zitzaion, eta neskatilari, jada genero indarkeriaren biktima ze-

Siriako bi ume, Rojava-n iheslarientzat zabalduko kanpaleku batean jolasten. Behean, Gazako lau ume, Beit Hanun-eko etxe bateko atarian. Bullent KILIĆ
Mohammed ABAD / AFP



na, etxeko lanak egitea. Gure aliatuekin elkarlanean, talde armatuko buruzagiekin negoziatu eta bi umeak askatzea lortu genuen», azaldu zuen Ruben Pascualek, Larrialdietarako batzordeko kideak.

Baina, ez da lan erraza. Afrika Erdiko Errepublikan hamaika talde armatu eta azpi milizia ugari baitaude. Lider jakin bat ez egoteak bereziki zailtzen du ume-soldaduek armak utzi ahal izatea, komandanteek ez baitute

emandako hitza betetzen. Pascualen hitzetan, 6.000 eta 10.000 ume bitartek dute nola-baiteko lotura gatazkarekin. Miliziek modu batera zein bestera beraien agindupean lan egitea behartzen dituzte, soldadu, zerbitzari edo esklabo gisa. Sexu-abusuak ohikoak dira.

Behin talde armatua utzita, birgizarteratzea prozesu luzea da. Gertuko seniderik eta lagunik gabe, gerraren ondorioei eta ume-soldadu izanaren estigmatari aurre egin behar diote.

Su-etenari buruz galdetuta, Pascualek iritzi txarra du. «Seleka-k –milizia musulmanak– eta Anti-balaka-k –matxino kristauak– adostu berri duten su-etenak ez du momentuz islarik egunerokotasunean. Gainera, hainbeste milizia egonik, oso zaila da herrialde osoan indarrean jartzea».

HEGOALDEKO SUDAN ZENBAKITAN

Hegoaldeko Sudanen 12.000 ume armak hartzera behartu zituzten 2014an. Gerra zibilaren eraginez, bost urte baino gutxiagoko 235.000 haurrek desnutrizio larria pairatu zuten iaz. Eta 2015erako aurreikuspena ez da batere itxaropentsua. UNICEFek aste honetan bertan ohartarazi duenez, talde armatuek astelehenean hitzartu zuten su etena betetzen ez badute, elikagai eskasia areagotu egingo da herrian. «Egoera katastrofikoa izatera irits daiteke», aditzera eman zuen ohar batean. Biztanle asko lekuz aldatzen hasi dira eskasiak behartuta.

Iaz, A bitamina duten osagarriak eman zizkien UNICEFek bi milioi haurri. 729.000 orri elgorriaren kontrako txertoa jarri zien, eta 662.000 orri polioaren aurkakoa. Intsektizida zuten 667.000 eltxo-sare ere banatu zituen UNICEFek, malaria prebenitzeko. 86.000 orri laguntza sikosoziala eman zien, eta baka-rrik zeuden 5.388 ume identifikatu zituen.

Halako deskribapen «latza» egin ostean, UNICEFek Libanon duen bulegoko zuzendari Berta Traviesok funtsezkotzat jo zuen herritarrek ahal duten neurrian dohaintzak egitea.

1.5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com



IKUSMIRA

MALAK, ESTATU «DEMOKRATIKO» BATEN LOTSA



Abbas MOMANI | AFP

Urtean 700en bat ume epaitzen ditu Israelek bere auzitegi militarretan. Hamabi urte beteta izatea nahikoa da herrialde «demokratiko» hartako legediaren arabera auzitegi horietako baten aurrera joan behar izateko... palestinarra izanez gero, jakina! Bi irudietako erretratuetan ageri den 14 urteko neska Malak da, une honetan okupatzaileek kartzelan duten neska palestinarrik gazteena. «Nola da posible nahi dituen arma guztiak dituen Israel nire alabaren aurrean mehatxatuta sentitzea?»

galdetu zuen Ali al-Jatib aitak (beheko irudian). Berarekin bat egin dute herritar gehienek eta, bai hedabideetan bai sare sozialetan, Malaken aurpegia bazter guztietan ageri da. Abenduaren 31n harri bat hartu omen zuen Malakek kolonoek Zisjordanian erabiltzen duten errepide batean. Horregatik epaitu zuten urtarrilaren 21ean eta bi hilabeteko kartzela-zigorra eta isuna ezarri zizkieten. Umeak berak egindako adierazpenak nahikoa izan dira epaileentzat. Beste inon ez da horrelakorik gertatzen, UNICEFek gogorarazi duenez. joseangel.oria@gaur8.info



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta eta osteopata

Mina desaktibatzen ikastea

Ederra litzateke hori, e? Nahierara, gogaitzen gaituen minaren aurrean klik egin eta desagerraraztea. Batzuek badakite nola egin: begira Indiako fakirrak, ezpata gorputzean sartuta zirkinik egin gabe; edo erlaxazio egoeran zegoela bere buruari su eman zion Thich Quang Duc bontzo famatua ere... Lasai, baina: ez dut zuek zuen burua lesionatzerik nahi. Muturreko adibide hauek giza gorputza noraino ailega daitekeen irudikatzeke bakarrik dira. Gure kasuan, helburua apalagoa izango da: nahigabetzen gaituen sorbalda, atzamar edo belauneko mina itzaltzea, indargabetzea, amatatzea. Egin daiteke. Uste baino errazago, gainera.

Lotailu, muskulu edo giltzadura batean lesioa dugunean, nerbio eta immunitate sistemek aldaketak ekartzen dituzte arazoaren lekura. Batetik, nerbioen berezko sentikortasuna handitu egiten da; bestetik, berriz, nerbio transmisioa errazten duten gai kimikoak ailegatzen dira. Eskolako fisikako esperimentuetan legez: elektrizitate-poloak ur destilatuan sartzean, elektrizitatea ez da pasatzen; gatza isurtzean, ostera, polo batetik bestera bidaia dezake. Lesioaren inguruan biltzen den glutamato, sodio, kaltzio eta oxido nitrikoko «zopak» ere funtzio hori betetzen du, eta mina sentitzen dugu. Hau ona da lesioa dugun artean: gorputz atal hori geldirik mantentzera bultzatzen gaituenez, sendatzea errazten du.

Baina prozesu honek iraupen zehatza du. Ehun mota bakoitzaren zikatrizazio epeak ezagunak dira: muskuluek 21 egun behar izaten dituzte asko jota; lotailu esgintzeek 28 egun; bizkarrezurreko diskoek 42 egun. Denbora horren ostean, gorputzak nola-halako oreka lortzen du, konpontzeko modukoak konponduta, eta konpondu ezin direnak trabarik ez egiteko moduan moldatuta. Beraz, goian aipatu dugun nerbio hipersentikortasun egoera luzatzeak ez du zentzurik, eta egoera normal batean min sentazioa desagertu egingo da.

Batzuetan, baina, hipersentikortasun hori ez da desagertzen. Lesio zaharren inguruan min sentazioa sortzen duen «zopa kimikoa» hainbat faktorerengatik mantendu daiteke. Horietako bat estresa da. Beste bat, tratamenduetan inoiz jasandako min handia (fisioterapiaren barne). Edo lesioaren fase akutuan tratamendu analgesiko desegokia hartzea (botika gutxiegi hartu izana). Irakurri ezazu berriz paragrafo hau, mesedez. Poliki. Jabetu zaitez bertan esaten ari naizenaz.

Beraz: lesio zaharra guztiz sendatuta egon arren, inguruko nerbioen hipersentikortasuna mantentzen bada, pazienteak mina du. Min erreala, ez berak asmatua. Prozesu hau arazo kroniko gehienek azpian dago. Plazebo efektua ere, neurri handi batean, azalpen neurofisiologiko ho-

netan oinarritzen da. Pertsona batek, prozesu hau erabiltzen ikasiz gero (fakirren eta bontzoen antzera), edozein tratamenduren ahalmen sendagarria biderkatzeko aukera du. Baita gaixotasun larrienen kasuan ere. Horrekin ez dut esan nahi pazienteak gaixotasun guztiak borondate hutsez sendatuko dituenik; bai, ordea, bere osasuna gidatu dezakeela, osagilea bigarren plano batean utzita.

Osagileondako ere minaren fisiologia ulertzea eta kontrolatzen ikastea azken urteetan ezagutzen ari garen erronkarik interesgarrienetakoa dugu. Samuel Gil fisioterapeuta kataluniarrek ederto azaltzen du hau “Qué es la sensibilización periférica y sus implicaciones clínicas” idazlanean; hari zor dizkiot gaur hemen botatakoak. •

<http://www.abante.eus>



Batzuetan, lesio zaharra sendatu arren, pazienteak mina izaten segitzen du.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Euskal Bidea, bertute asko eta zenbait arazo

Berriki plazaratutako Euskal Bidea proposamenak ikuspegi orokorra osatu du. Helburu taktikoak –zenbait oso epe motzekoak: gehiengo berriak osatzeko aukerak edo Ipar Euskal Herriarentzat ezagutza instituzionala lortzeko eztabaida hortxe daude, adibidez– eta estrategikoak definitu ditu, baina eskema itxiak eta mekanikoak –honen ondotik beste hau dator eta horrela baizik ezin da gertatu– sortu gabe. Berezko proiektua –EH Bilduren eta EH Bairen kasuan, Euskal Estatua– eta prozedura demokratikoa bereizi ditu. Oso korapilo garrantzitsuak askatzeko aukera eman du: lurraldetasunaren auzia eta gaur egungo erakundeen funtzio aldaketa lortzeko bidea. Nolabait laburbiltzeko, bidearen/prozesuaren ideiak josi du erabakitzeko eskubidea gako duen proposamen osoa.

Ikuspuntu historikotik hartuta ere, esan daiteke Euskal Herria zatitzeko, urtzeko eta asimilatze saioari aurre egin izanaren ondotik etorkizuna eraikitze gidoia eskaintzen duela. Nolabait esatearren, Euskal Bidean aurrera egiteak, besteak beste, «*relato*»-aren bataila famatuan arreta mami politikoan jartzea ahalbidetuko luke, damuaren moduko eztabaida antzuetan –batzuei beraien buruari uko egiteko eskatzen zaie, ez egindako kaltearen aitorten beharrezkoa– ito gabe. Iraganaren irakurketa egokia egiteko etorkizuna behar da.

Beraz, bertuteak baditu proposamenak, baina baita gainditu beharreko kontuak ere. Batzuk etxe barrutik ere badatozkio, seguru asko; Euskal Bideak zer suposatzen duen jabetzea proposamena egin dutenei eta indar horiek ordezkatzeko dituzten familia politikoei ere bai baita gokie. Ezker abertzalearentzat, zehazki, duela bost urte egindako estrategia aldaketa etorkizunera begira jartzeko aukera izan behar du, estatuekin aldebiko prozesurik –oraingoz– garatzeko aukera ezeztatu ostean.

Eta inguruan ere badira arazoak. Hauteskundeak hortxe daude, eta zaila da horrelakoetan eztabaidari behar bezala eustea. Proposamena hauteskunderi begira plazaratu izana leporatu dienik ere izan da. Hala balitz, hauteskunde asmo soila balego, luzera beraien burua baizik ez lukete kaltetuko EH Bilduk eta EH Baik.

EAJk eta, bereziki, Urkullu lehendakariak gogor hitz egin dute proposamenaren kontra. Euskal Herriaren interesei begira edo burujabetza prozesu bat adosteko txarra delako? Ez, horregatik ez, hala balitz ere. Proposamenak zer dioen gutxi axola zaie. Arazoa ez dago mamian. EAJk hautu bat egin du, eta eremu askotan argi bezain garbi antzeman daiteke.

Gatazkaren muinean dagoen estatus politikoaren eztabaida ez du azkartu nahi, horrek posizio bat hartzera behartuko lukeelako. Estatuarekin ez du sakoneko istilurik nahi, azaleko aparra baino ez. Gatazkaren ondorioei buruz oso posizio gogorra hartzen ari da, eta presio osoa, baita nazioarteko eragileena ere, ETaren eta ezker abertzalearen gainean jartzeko dena eta denak behartu nahi ditu, ultimatum eta guzti. Eta horrekin denarekin bat dator ezker abertzalearekiko tentsioa gero eta gehiago handitzeko jokabidea indartzea.

Ikuspuntu historikotik hartuta ere, esan daiteke Euskal Herria zatitzeko, urtzeko eta asimilatze saioari aurre egin izanaren ondotik etorkizuna eraikitze gidoia eskaintzen duela

Lehen helmuga datozen hauteskundeetan du. Gipuzkoako Aldundia bereganatzea du lehentasun, nahiz eta bozketa ez irabazi. Orain arte, EH Bilduren atzetik geratu arren, halako berdinketa tekniko bat lortzea zuen helburu koalizioari gobernua kentzeko. Orain, diotenez, ituen bidez gehiengoa lortzen badu, gobernu bila joango da. Bost axola EH Bilduk hauteskundeak ondo irabazten baditu ere. Arrazoiak: beste lau urtez segitzen badu Aldundian, EH Bilduk bere gobernua egonkortuko lukeelako nork daki noiz arte.

Bada esaten duenik Euskal Bidea bi indar politikok aurkeztu izana eragozpena izan daitekeela alderdien arteko tirabira giro honetan. Beharbada. Baina herri plataforma batek halakorik planteatzea zezakeen familia politiko baten itzalpean agertu gabe? Zaila hori ere.

Arazoak eta bertuteak, ez dago bide idilikorik. •

IRUDIMENA ETA DESOBEDIENTZIA, ALDARRIKAPENAREN OSAGAI

oihana.llorente@gaur8.info

Euskal presoak Euskal Herriratzeko bidean «urrats txikia» izan direla diote, baina gure memorian oroitzapen handiak iltzatu dituzte. Olentzeroz edo Giralduz jantzita, bizikleta gainean edo auto bat irauliz, aldarrikapenak lau haizetara zabaldu eta irriño bat eragin digute.

Urte zaharrari agur esan eta lehen mahatsa ahoratu orduko, euskal presoek aldeko azken ekintzaren testigu bilakatu ziren Estatu espainoleko telebista katei begira zeuden milioika herritarrak. Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko aldarrikapena presente egon zen Madrileko Puerta del Soleko ordulari entzutetsuan, noiz eta hama-bi kanpai-hotzen oihartzunak urte berria iragartzen zuen unean. Ekintzaileak oraindik Madrileko hotela atzean utzi gabe zeudela, Euskal Herrian mugikor bate-tik bestera saltoka zebilen Whatsappeko irudia zen. Sare sozialetan ere bolo-bolo hedatu zen ekintza. Hala, memoriari bidaiatzeko parada eman eta beste garai bateko desobedientzia ekintzak topatzeko aitzakia bihurtu zen.

Giraldu, Frantziako Tourrean euskal presoek Euskal Herriratzeara pedalkadaka galdegin zuen txirrindularia edo Esteban Esteban Nietoren erietxeko irudia euskal herritar ugariaren memorian iltzatutako irudiak dira. Nola otu zitzaion, baina, Olentzero Algeciras, La Sante eta Cartagenako espetxeetara bidaltzea? Zer sentitu zuen Atletismoko Munduko Txapelketako maskotaren larruan zegoen horrek? Urte hauetan guztietan buruan izan ditugun zalantzak uxatu eta buzo txuri, hori edo berdearen atzean ezkututzen ziren gizon-emakumei eman diegu hitza. Horretarako, garai bateko eta oraingo ekintzaileak mahai beraren bueltan elkartu ditu GAUR8k. Gaztetasunaren freskura dute batzuek, esperientzia handiko hitzak besteek. Neskek eta mutilek. Presoen aldeko Elkartasun Ekintzaileak, Zuzen edo Demoak kolektiboetan parte hartu duten kideak denak.

Aspaldiko lagunak dira batzuk, aurpegi ezezagunak besteak. Adeitasun keinuen eta hemen argituko ez ditugun aurkezpenen ostean, berba jariora hasi da. Aitzindariak hartu dute hitza lehenik, Presoen aldeko Elkartasun Ekintzaileak taldea osatu zuten haiek.

1997. urtera egin dute atzera, orduko Senideak elkarteak euskal presoek eskubideen alde Gabonetan Arantzazun antolatutako baraualdia, zehazki. «700 bat lagun elkartu ginen bertan, sindikalgintza edo kultur mundutik etorritakoak, senide eta lagunak, baita herritarrak ere. Egun horietan, lantalde txikiak egiten genituen presoek egoera nola gizarteratu eztabaidatzeko. Itoizko solidarioek egiten zituzten ekintzen modukoak egiten hasia atera zen ideia gisa». Ideia Arantzazun gelditu zen, baina gogoaren harra barruraino sartuta atera ziren batzuk.

Hilabete batzuk geroago, 1998ko irailean, Oarsoaldean presoek eskubideen alde aritu nahi zuten herritarrak



Presoen aldeko Elkartasun Ekintzaileak taldeko kideak, Algeciraseko espetxean.
Jon URBE

bildu eta taldetxoak osatu zuten. Errenteriako Pleno Aretoan ere ekimena egin zuten, Irlandako gatazkaren berri ematen zuen «En el nombre del hijo» filma ipini eta haien antzera mantak soinean ibili ziren erakundean.

Taldearen sorreraren berri izan orduko, Arantzazun ezagututako kide baten bisita izan zuten Oleretan. Plan zehatza zuen buruan: Olentzero Algeciraseko espetxera eramatea. «Pertsona honek leihotatik iri-ki zuten gure parean, pareta bat hautsi zuen eta Euskal Herri-kanpo gauza handiak egin zitezkeela ikusi genuen», onartu du Arkaitz deituko diogun pertsonak.

Eskailerak furgonetan jarri, Olentzero- ren jantziak motxilan sartu eta Andaluzia aldera joan ziren hamaika ekintzaile. Aurretik, baina, egitasmoa diseinatzen lan handia egin zuten. Lehen egitekoa bilatzen zuten irudia adostea da. «Abendua- ren 24an Euskal Herrian opariak banatzen hasi aurretik, Olentzero Algecirasera joan eta presoak Euskal Herri-kanpo saiatu zela irudikatu nahi genuen. Hilaren 24ko orduko «Euskadi Información» eta «Egunkaria»-n ateratzea nahi genuen, eta beraz, irudiak 23rako egon behar zuten Euskal Herrian», ekarri du gogora.

Andreak prentsaren ardura zuen garai horretan, eta, edozelako ekintzak hiru es-

parru zituela ekarri du gogora: azpiegitura, prentsa eta ekintzaileak eurak. Ardatz bakoitzak arduradun bat zuen eta bakoitzak bere alorra kudeatzen zuen. «Ekintzaileak lotu, jantziak, dirua... Diru asko behar genuen: furgonetak alokatzeko, bidaia ordaintzeko, baita behin baino gehiagotan iraultzeko erabili ditugun kotoxeak erosteko ere...», ekarri du gogora.

DESIRATUTAKO IRUDIAREN BILA

Bezperako gaua espetxe inguruko hotel batean igaro ostean, baserritarrez jantzi, eskailera muntatu eta espetxeko harresi- ra kateatu ziren ekintzaileak. Poliziak har- riduraz harrapatu zituzten; ekintzaileak askatu, identifikatu eta alde egiteko eska- tu besterik ez zuten egin. «Arazo bat ze- goen –esan du barrez Arkaitzek–: guk iru- dian Olentzero atxilotuta ikustea nahi genuen eta egoera apur bat tenkatu be- har izan genuen, Olentzero preso eram- an zezaten. Halakoetan guk dugu egoeraren kontrola, badakigu zer egin behar dugun eta zer irudi bilatzen dugun, haiek sor- presaz harrapatzen ditugu».

Andreak gogoan iltzatuta du irudi ha- ren atzeko abentura, garai hartan ez bai- tzegoen klik egin eta sare sozialetan es- kegitzeko aukerarik: «Argazkilari bat eram- an genuen Euskal Herri-kanpo eta beste

1997. urtean, Senideak elkarteak baraualdi bat antolatu zuen Arantzazun. Bertan, Itoizko solidarioek egiten zituzten ekintzen modukoak egiten hasteko ideia sortu zen. Ideia Arantzazun gelditu zen, baina gogoaren harra barruraino sartuta atera ziren batzuk

«Algeciraseko ekintzak leiho bat ireki zuen gure parean, pareta bat hautsi zuen, eta Euskal Herritik kanpo gauza handiak egin zitezkeela ikusi genuen»

pertsona bat mezulari gisa bakarrik etorri zen. Argazkia egindakoan, karretea pertsona honi eman eta Malagaraino kortexez joan zen. Han, aurrez lotuta genuen hegazkinean sartu eta Bilbora iritsi zen. Han errebelatu eta egunkarietako erre-dakzioetara eraman zuten».

Ederki atera zitzairen lehen ekintza hura eta gehiago egiteko gogo barruraino sartuta, bueltarako bidea hurrengo ekintza diseinatzeko baliatu zuten.

Estatu espainol edo frantseseko agertokiak buruan zituzten bitartean, Euskal Herrian euren eredu jarraitzen zuten taldetxoak loratzen hasi ziren. Euskal presoek Euskal Herriratzea galdegiteko pegatina zeraman buzo zuria modan jarri zen garai hartan.

«Intsumisio eta desobedientziaren bidea hartuta, ekintza ez-bortitzak eginez giza eskubideen inguruan aritu nahi genuen –hasi da azaltzen Arkaitz–. Beste modu batzuk eta beste mezu bat zabal-tzen saiatu ginen. Adibidez, Esteban Nietorekin, «Esteban, te queremos... en casa» leloa erabili genuen, maitasunaz arituz. Hala ere, su-eten garai batean geundela ere esan beharra dago. Egoera politikoak erraztu zigun halako ekintzak egitea eta halako ekintzetan pentsatzea ere, beste

Frantziako Tourrean euskal presoek Euskal Herriratzea pedalkadaka galdegin zuen txirrindularia. Lerro hauen azpian, tren bat eten zuten uneko irudia.
Bob EDME, Jon URBE

egoera batean ez zitzaigun okurritu ere egingo, seguru».

Ados ditu entzule guztiak. «Jendea konbentzitu nahi genuen –gehitu du Andreak–. Euskal presoek herriratzearen alde jende asko zegoen, baina alde zeuden horiek gureganatu eta kontra zeudenak ere urrats bat gerturatu nahi genituen, giza eskubideak jartzen genituen begien aurrean. Modu atsegin batean eta irribarre bat eragin nahian egiten genuen».

1999. urteko uztailean, ekintza entzutsuena egin zuten. Giralduaren.

Olentzeroren lehen ekintza hura pentsatu zuen pertsona berak jarri zuen ideia mahai gainean. «Sekulako ideiak izaten zituen, bileraren uneren batean begirada galtzen bazuen, kontuz! Badator ideia! Berak ideia onak zituen, bai, baina gu guztiak azkar motibatzen ginen», eka-

rri dute gogora irribarre batekin. «Guk ahal genuela sinesten genuen eta dena ondo ateratzen laguntzen zigun izar bat genuela ere bai!», dio barre artean Arkaitzek. Aldarte ikusita, erraz uler daiteke euren lema: ezina ekinez egina.

Ekintza egin aurretik, tokia bertatik bertara ezagutzeko ohitura zuten. Hala, 1999ko ekainean Sevillara joan, handik eta hemendik lotutako kontaktuak ezagutu eta estadioan sartzeko aukera izan zuten. Hamabost bat lagun itzuli ziren uztailean, tartean Giralduaren bi panpina erraldoiak ere.

Gogoan dituzte ekintza egin aurreko tentsioak. Etxean, telebista aurrean eseri eta zaintza lanetan 3.000 polizia, guardia zibil eta Interpoleko kide egongo zirela entzun zuten. «Ekintzaile guztiak zurbil-zurbil geratu ginen –gogoratu du Arkai-



tzek-. Bat-batean, baina, gutako batek “¡Cotino –orduko Polizia espainoleko burua–, te vas a enterar!” bota eta denak barrez lehertzen hasi ginen. Ez zegoen atzera egiteko inolako asmorik».

Segurtasun kontroletatik behar zuten materiala oharkabean pasatzea erronka handia zen. Horretarako, Andreak gogoan duen moduan, ahalik eta kanpotar itxura handienarekin sartzea erabaki zuten. Barreari ezin eutsirik, buru gainean txalo egiten zuten bi esku zituen txapela nork jarri erabakitzeke egindako zozketa ekarri du gogora. Tentsio eta urduritasunez beteriko une ederrak bizi izan zituztela agerikoa da.

Carlos Herrera aurkezlearekin oholtza partekatzea lortu zuten euskal preso

Bartzelonako Diagonalean irudikatutako auto istripua. 2003. urtean, Poissyko espetxean, Zuzenek eta Demoek egindako ekintza. Esteban Esteban Nieto erietxean zegoela egindako aldarrikapena. Eta Munduko Saskibaloi Txapelketan, joan den irailean, egindako ekintza.

Jagoba MANTEROLA, Gaizka IROZ, Jon URBE, GAUR8



Euskal Herriratzearen aldeko Giralddilek, baita euskal herritar askoren memorian tokitxo bat egitea ere.

Ekintza hura askorentzat eredu bihurtu zen. Hala gogoratzen du bederen Peio Etxeberri-Aintxartek, Demokrazia Euskal Herriratzat (Demoak) mugimenduko kideak: «Borroka armatuaren eta politikagintza klasikoaren artean espazio bat zegoela sinetsita geunden, bortizkeriarik gabe baina era berean erradikalak izango ziren ekintzak genituen buruan eta Giralddilen agerpenak sekulako eragina izan zuen gudan».

DEMOAK ETA ZUZEN, ELKARLANEAN

2000. urteko urtarrilaren 6an egin zuen lehen ekintza presoan Euskal Herriratzearen, Euskal Departamenduaren eta euskararen alde aritu nahi zuen dinamika hirukoitz honek. Irudimena eta umorea baliatuz urraketa demokratikoak salatu nahi zituzten horiz janzten ziren Demoek. «Guk ez dugu inoiz estatuekin indar harreman bat bilatu, ez da posible halako ekintzen bidez kartzela politika osoa kolokan jartzea, –esan du ziur Etxeberri-Aintxartek–. Irudi bat bilatzen genuen guk, jendea sentsibilizatu eta gureganatuko zuen irudia bat».

Demoek martxan ziharduten bitartean, Bidasoaren hegoaldeko lurretan Pre-

soen aldeko Elkartasun Ekintzaileak talde hark mugimendu bilakatu nahi zuen Zuzen taldeari pasatu zion lekukoa. Demoek eta Zuzenekoek harreman estua izan zuten hasieratik eta ekintza bat baino gehiago batera egin zituzten. Hala eta guztiz ere, baziren desberdintasunak lapurtarraren begietara: «Guk ekintza xumeagoak egiten genituen, oihartzun mediatiko txikiagokoak, baina baita parte-hartzaileagoak ere».

Etxeberri-Aintxartek gogoan du talde lanean aritzeko zuten modua: «Mugimendua iraunkortzea genuen helburu eta horretarako arriskuak mailakatu eta militanteak nahi adina konprometitzen ziren. Zehazki, 5 maila zeuden: arriskurik ez, identifikatzeko arriskua, atxiloketa, atxiloketa eta epaiketa baten arriskua eta kartzela arriskua. Jendeak nahi zuen mailan ematen zuen izena eta horren arabera prestatzen genuen ekintza».

Ekintzaren aurretik egiten den lana itzela da. Prentsa, azpiegitura eta ekintzaileak eurak lotzeaz gainera, ekimena bera juridikoki ondo aztertzen zuten, arriskuak aurreikusi eta haiek txikiagotzeko. «Dena, baina, kontrolpean edukitzea ezinezkoa da», esan du Iñakik eta Cartagenako espetxetik jaitsarazteko abentura ekarri du gogora: «Mozkortuta



«Intentsu eta eder» gisa gogoratzen dituzte ekintzak egiten igarotako urteak: «Lagun talde izugarria sortzen da, dena emanda bizi diren momentuak dira, oso une politak eta aldi berean larriak»

zegoen jaitsi nahi gintuen polizia, eta gu hari laguntzen, hura eroriz gero sekulako *marroia* hartu beharko genuelako gure gain».

Zuzeneko garaietan Iñakirekin batera ibilitako Maitane ere elkartu zaigu tertuliara eta haiek Demoen antzera antolatzen zirela nabarmendu du. Garai horretan «militatzeko modu berri bat» zela ere go-raipatu du: «Ordura arte ezagututako taldeetan, kide zinen edo ez zinen, ez zegoen erdibiderik eta hemen maila batean askatasunez erabakitzen genuen».

Biziki gogoan ditu Zuzenen emandako urteak, «intentsu eta eder» gisa gogoratzen ditu-eta; «lagun talde izugarria sortzen da, dena emanda bizi diren momentuak dira, oso une politak eta aldi berean larriak», gehitu du. Presoen aldeko Elkartasuna Taldeko ekintzaileetako batzuk lagunak zituen eta ekintza baten berri zuen bakoitzean «haluzinatu» egiten omen zuen. Zuzenen parte hartzeko gonbita egin zioten eta zalan-tza izpirik gabe eman zuen baietza. «Oso irudimentsuak ziren ekimenak. Aldarrikatzeko beste modu bat da, *manifa-ri* begiratu ere egiten ez dionaren aurrean jartzen da mezua halako ekimenenekin, modu atsegin eta politean, gainera», esan du.

«Beti talde txikitik aritu gara, baina zer gertatuko litzateke desobedientzia zibila tresna gisa era masiboan erabiliko bagenu?». Horixe ekintzaileek eurek luzatu duten galdera eta gonbita




Irribarrean ahoan, denek baietz adierazten zuten buruarekin, garaiko pasarteak gogoratzen zituzten bitartean. Etxeberri-Aintxartek, adibidez, «abentura humano» gisa definitu zuen Demoak mugimenduan egindako ibilbidea: «Ez dugu eman bakarrik egiten, jaso ere egiten dugu, asko gainera. Militante mailan formatzen gara, baita pertsona gisa ere. Dimentsio humano hori ezinbestekoa da, oso hotz geratuko litzateke bestela, eta ez ginateke luze arituko».

2005. urtera arteko bidea egin zuten Demoek eta Zuzeneko kideek, arriskuak kontrolpean hartzeko neurriak hartu arren errepresioak gogor kolpatu zituen-eta bertako kideak. Estatu frantsesean, adibidez, ekintza batetik besterako tartean legedia aldatu zuten. Zuzenek eta Demoek Olentzero La Sante espetxera eraman ostean, 2003. urtean Poissyko kartzelara eraman zuten. «Bertan, baina, atxilotu eta lehen falta bat zena delitu bihurtu zutela jakinarazi ziguten. Hegoaldek etorritakoak askatu ere ez gintuzten egin nahi. Horrek asko zaildu zuen aurrerantzean halako ekimenak egitea Frantziar Estatuan», ekarri du gogora Maitanek.

Milaka pezeta, franko eta ondoren euroko isunak jaso dituzte ekintzaileek. Bida-





Madrileko Puerta del Soleko ordularian joan den abenduaren 31n egindako ekintza. GAUR8

soaldearen bi aldeetan estrategia desberdinak eraman dituzte hauei aurre egiteko. Demoek isunei kolektiboki aurre egiten zieten; Zuzeneko kideek eta aurretik ibilitako ekintzaileek, berriz, beraien gain hartzen zituzten, taldeak zituen behar ekonomikoak lehenetsiz. Bi estrategiek egokiak ziruditen arren, errepresioak bere estrategia eraldatu zuen. «Dispersioak eragiten dituen istripuak salatzeko kotxe bat irauli ostean, Demoetako kide bati gida baimena kendu zioten eta lana galdu zuen. Halako neurriekin jendea erre egiten da», ekarri du gogora Etxeberrri-Aintxartek.

ORAINDIK ERE GOGOZ ETA ILUSIOZ

Batzuk erre arren, testigua hartzeko gogoz direnak ere badaude. 2012. urtetik hona euskal presoan eskubideen aldeko desobedientzia ekintzak egiten dituen ekintzaile talde bat han eta hemen baitabil. Haiek dira, adibidez, iazko irailean aldarrikapena Bartzelonan jokatu zen Munduko Saskibaloi Txapelketara eraman zutenak, hala nola Donostia Zinemaldiaren atarian Hugh Jackman konbentzitu zutenak.

Aitzindarien antzeko *modus operandi*-a erabiltzeaz gain, aurrekoek herentzian utzitako ekintzak gauzatzen ari dira. Horietako bat Madrileko Puerta de Solekoa izan da. Mahaiaren bueltan daudenek onartu moduan, behin baino gehiagotan pentsatutako ekintza izan da hori. 2013. urteko Gabonetan egiteko asmoa zutela onartu digute egileek; ordurako hotela lotuta zuten, baina teknologia kontuentziaz atzeratu behar izan zuten.

Aurten, baina, egiteko moduan izan dira. Hotela urte berria hainbat hiriburutan grabatu nahi omen zuen Alemaniako produktore baten bidez lotu eta eurak bertako langile moduan sartu ziren. Dirutza ordaindu zuten erloju mitikoari begira zegoen logelagatik, baina ekintza ezin izan zuten ikusi, gelaxka ziztrineko telebista ez baitzebil.

Barrez dituzte entzule guztiak eta anekdotatxoetarako tarteak ere ireki da. Algara gehien eragin dituen Demoek kotxea irauli eta bueltan ekarri behar zutenekoa izan da. Madrileko Genova kalean eta Bartzelonako Diagonalean dispersioak eragiten dituen istripuak salatzeko kotxe baina irauli ostean, Demoek Parisen berdina egitea otu zitzaion. Kotxea erosi –bestela Poliziak lapurreta leporatzen duelako–, hura irauli, atxilotu eta, komisariatik atara zirenean, kotxea eurekin eramateko agindua eman zien Poliziak. «Aurrealde guztia izorratuta zegoen, kristala erabat apurtuta. Paris inguruan autoak desegiteko zeuden eremu guztietara eraman eta ez ziguten onartzen. 800 kilometro egin genituen auto txikituarekin eta Ipar Euskal Herrira iritsitakoan lore-sorta bat bidali genion kotxearen jabeari, Polizia galdkatzen aritu zitzaizola jakinda barkatzeko-edo», azaldu du.

Hainbat garaitan hainbat talderen ize-nean egin dituzten ekintzak izan diren arren, bi multzotan banatu dituzte ekintzak ekintzaileek. Jatorrak eta irudimentsuak batetik, eta hor sartu dituzte Giraldillarena, Tourrarena eta Munduko Saskibaloi Txapelketakoa. Beste multzoan egoera larriek eskatutako ekintzak daudela nabarmendu dute. Hala nola, Esteban Nieto ospitalean larri gaixotuta zegoela haren gelara sartu zirenekoa edo Bautista Barandalla preso gaixoa askatzeko Iruñeko espetxean egindako ekimena.

Oroitzapen, anekdota eta barre artean azaldu dizkigute euren ekimenek emandakoak. Haiek argi dute euskal presoak Euskal Herriratzearen bidean «pauso txikiak» direla beraien ekintzak. Hausnarke-ta bat mahai-gaineratu dute, baina: «Beti talde txikitari aritu gara. Zer gertatuko litzateke desobedientzia zibila tresna gisa era masiboan erabiliko bagenu?». Horixe ekintzaileek eurek luzatu duten galdera eta gonbita.

ANDER GILLENEA ETA JON URBE

ARGAZKILARIAK

«Bidaia osoa detaileak errepasatzen ematen genuen, baina inoiz ez genekien gero zer pasatuko zen»

Urte batzuk joan dira 1998ko abenduaren 30 hartatik. Ordutik, beren kamerekin jasotako gertaerak ere ehunka dira. Elkarren ondoan jarrita gogoratu dituzte Ander Gillenea eta Jon Urbe argazkilariak 1998-1999 urteen bueltan Estatu espainolean barna solidarioen atzetik egindako kilometro mordoa. Urte asko pasatu dira, tentsio handiko uneak izan ziren eta memoriak modu bitxian jaso ohi ditu horrelakoak. «Lehen Algecirasko espetxekoa izan zen. Olentzero espetxeko leiho batera igo eta rotaflex batekin barrak moztzen saiatu zen. Su-etenaren garaia zen eta asko sumatu zen giroan. Herriarrek animatu egiten zituzten solidarioak, txalotu. Gogoan dut urtebete geroago, Olentzeroren bigarren ekintzan, dagoeneko su-etena bertan behera geratu ondoren, giroa oso bestelakoa zela eta handik korrika atera behar izan genuela. Beldurra pasatu genuen», hasi da gogoratzen Urbe. Orduan eskura zituzten baliabide teknologikoek ez dute antzik egungoekin. Orduan ez zen hain erraza argazki bat atera eta segidan erredakzioetara bidaltzea. «Karretearekin lan egiten genuen. Gogoan dut Marbellako argazkidenda batera joan ginela, ordubeteen argazkiak errebelatzen zituen horietako batera. Gure kezka nagusia zen argazki-dendakoak argazkiak ikustean zer egingo ote zuen, Poliziari abisua emango ote zion. Bueltatu ginen argazkien bila eta ez, ez zuen halakorik egin. Bigarren urratsa, argazkiak bidaltzea zen. Horretarako, bidean jatetxe batean geratu ginen eta zerbitzariari argindarra eta telefonorako konexioa eskatu genizkion. Oso tipo jatorra zen. Eman zizkigun eta han genbiltzan, plater artean, argazkiak Euskal Herriko erredakziotara bidali nahian. Halako

batean, zer bidaltzen ari ginen konturatu zenean, zerbitzariak abisua eman zigun: 'Bukatu azkar horrekin. Niri ez zait axola, baina nagusia zertan ari zareten enteratzen bada, ederra daukazue', segitu du Urbek. «Nik argazkiak errebelatzeko kutxa propioa nuen. Kutxatxo bat nuen horretarako prestatuta. Eta horrekin ere aritzen ginen batzuetan», zehaztu du Gillenea.

Bi foto-kazetariak maiz elkarrekin aritu ziren solidarioen ekintzak jasotzen. «Guk hasieratik esan genien garrantzitsua zela guk distantzia mantentzea. Ekintzaren berri emango genuen, horretarako gutxieneko informazioa izan behar genuen, baina gu ez ginen taldeko kide. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun distantzia hori eta objektibotasun hori mantentzea», nabarmendu dute. Hartara, bidaia ere bere aldetik egiten zuten, autoan gehienetan eta gauez. «Bidaia guztia detaileak errepasatzen ematen genuen, aukerak aztertzen, arazoak aurreikusten... baina gero inoiz ez genekien seguru zer pasatuko zen».

ESTEBAN NIETOREN ARGAZKIA

1999. urteko apirilaren 5ean Puerto Realgo erietxean ziren, solidario talde batekin batera. Esteban Nieto euskal preso oso gaixorik zegoen erietxean, eta harengana iristea zuten helburu solidarioek. «Batzuek eraikinaren kanpoaldetik sartzen ahalegindu behar zuten eta beste batzuek, barrutik. Gu biok joan ginen eta lana banatu genuen, bat kanpoan geratu zen eta bestea barrukoa egiten saiatuko zen. Ni kanpoan geratu nintzen eta Jon sartu zen barrura», hasi da kontatzen Gillenea. «Informazio gutxi genuen. Gelako zenbakia eta gutxi gehiago. Kamera txiki bat hartu nuen, ezkutatuta eraman ahal izateko. Solidarioak gelara sartu eta minutu batzuetara agertu nintzen ni. Ez nekien zer



Ander Gilleneak eta Jon Urbek gertutik ezagutu dituzte solidarioen hainbat ekintza. GAUR8

topatuko nuen. Kamerarekin gelan sartu eta trabatu egin zitzaidan, botoia sakatu eta sakatu eta ez zuen argazkirik ateratzen. Azkenean, argazki bat ateratzea lortu nuen. Gogoan dut poliziak eta Esteban Nieto bera harrituta geratu zirela ni han agertu nintzenean, 'eta hau, zein da?', pentsatuko zuten. Argazki bakarra atera eta pasillotik korrika atera nintzen. Kamera ezkutatu eta normaltasuna irudikatu nahian iritsi nintzen kaleraino. Eta Ander han zegoen, zain. Kotxean sartu eta ziztu bizian abiatu ginen», segitu du Urbek.

Bidean geratu eta ostatu bateko gelan, Gilleneak eraman ohi zuen kutxan errebelatu zituzten argazkiak. Kanpokoak bai eta barrukoak ere bai. Helburua beteta, beraz. «Euskal Herrira bueltan, erredakziotik deitzen ziguten, polizia argazkilarien bila zebilela kontatzeko. Horrelakoetan, gu burbuila batean bezala egoten ginen, ez genekien oso ondo zer pasatzen zen hortik kanpo. Gure lana argazkia lortzea zen eta horretara jartzen ginen», zehaztu dute.

Batzuetan, baina, gauzak ez ziren espero bezala ateratzen. «Beste batean, Madrila joan ginen, PPrek kongresu batean egitekoak ziren ekintza baten harira. Aparteko pabilioi batean zen kongresua, asteburua zen eta poliziak nonahi zeuden. Iritsi orduko konturatu ginen oso toki txarra zela ateratzeko. Solidarioak ere iritzi berekoak ziren, eta bertan behera utzi zuten prestatutakoa»,

esan du Gilleneak. «Bai. Barajas inguruan geratu ginen atsedean hartzera eta han oso ezaguna egiten zitzaidan gizon bat ikusi nuen, ondo-ondoan. 'Ezagutzen dut, zein da hau?', esanez jardun nintzaion Anderri. Ez ginen konturatzeko. Eta ja joanda zegoenean konturatu nintzen, 'aiba, Pedro Duque zen!'. Espainolen artean heroi bat zen, espaziora joandako lehen astronauta espainola izan zelako. Moda-modan zegoen. Gurekin argazki bat ateratzeko esan izan bagenio, seguru baietz esango zigula. Gutxienez hori ekarriko genuen bidaia hartatik», gogoratu du umorez Urbek.

SEVILLAKO GIRALLILLAK

1999. urteko abuztuaren 20an Sevillan zegoen Ander Gillenea. «Hegazkinez joan nintzen. Ni iritsi nintzen, baina errebelatzeko kutxa, ez. Iritsi orduko argazki denda batera joan eta errebelatzeko materiala erosi behar izan nuen. Baina oso era prekarioan aritu nintzen. Pentsa, hoteleko ile lehorgailuarekin lehortu nuen argazkia», hasi da kontatzen. Detalle handiz gogoratzen ditu Sevillan emandako egunak, intentsitate handikoak izan zirelako eta euskal presoan aldeko Giraldule munduari buelta eman ziotelako. Kanpotar despistatuaren plantak eginez lortu zuen Atletismoko Munduko Txapelketaren hasierako ekitaldia egin

zuten estadiora sartzea. «Ezin ziren kamerak sartu. Nik kamera bat eta objektibo handi bat neramatzen aldean. Sarreran zeudenen artean sinpatikoa zirudien neska bat aukeratu nuen. 'Ez didazu utziko horrela sartzen, baina...' eta, berak 'quillo' esanez baietz, sartzeko. Giraldule sartzen ere ikusi nituen, erraz. Pentsa, handiak zirenez ate handi bat ireki zieten, apropos ondo sartzeko. Eta zuzenean oholtzaraino gidatu zituzten», gogoratu du. «Barruan nintzen. Oholtzaren azpiko partean sartzeko sarrera neukan, argazkilari mordo batekin batera. Despistatuarena egiten jardun nuen denbora guztian, Espainiako ejertzitoaren maniobreakin txundituta banengo bezala. Ordurako giraldule sartzen ikusi nituen, arazo handirik gabe. Gogoan dut Sevillako gazte bat ere bazegoela, solidarioen lagun bat, bideo kamera batekin».

Gilleneak kontatzen duenez, inguruko argazkilariak mundu mailako argazki agentzientzat ari ziren lanean, karreteekin artean. «Antolakuntzako komunikazio arduraduna maiz pasatzen zen argazkilarien artean, haien karreteak hartu eta errebelatzera eramateko. Bera arduratzen zen argazkiak lehenbailehen agentzietara bideratzeaz. 'Karreteak? Zein agentzia?', galdetu eta eramaten zituen. Bitan etorri zen nigana, nire karreteak hartzerik nahi ote nuen galdezka, eta nik bitan ezetz, oraindik ez nuela behar. Tipoa harrituta geratzen zen, 'honek ez

ote dauka presarik?', pentsatuko zuen». Azkenean, Giraldule oholtzara iritsi ziren, tela bat erantzi eta "Repatriation Bask prisoners" leloa bistaratu zuten. Hogei minutu eman zituzten oholtza gainean. «Niri izugarri luzea egin zitzaidan. Argazkiak atera eta handik lehenbailehen alde egiteko unea zela ikusi nuen. Poliziaz eta erret familiaren eskoltez inguratuta nengoen. Poliziaren buruarengana gerturatu nintzen zuzenean, gehien agintzen zuenarengana. Ordurako nahasmendu handia zegoen. Begira-begira geratu eta '¿el baño?', galdetu nion. Ez zuen espero, eta berehala esan zidan non zeuden komunak. Hara bidean, poliziak etorri eta etorri ikusten nituen, eta denak begira geratzen zitzaizkidan. Eta nik, denei; '¿el baño?'. Iritsi nintzen komunera. Barrura sartu eta minutu bat itxoin nuen. Oso urduri nengoen. Atera eta bidean zeuden polizia guztiei galdetu nien, '¿la salida?'. Eta horrela lortu nuen ateratzea, juxtu giraldule eta solidarioak atera zituzten ate beretik. Ja kanpoan, sekulako argazkia ikusi nuen: bi giraldule eta solidario taldea paretaren kontra jarrita, eskuak gora, eta polizia mordoa inguruan. Baina ezin nintzen arriskatu. Bizkor-bizkor atera nintzen handik, argazki hura atera ez izanaren penaz. Kostata, taxi bat topatzea lortu nuen, eta hotelera eramateko eskatu nion. Eta, taxistak: 'Que dicen que han aparecido etarras en el estadio. Estos etarras son tremendos...'. Esan nion zerbait entzun nuela, baina ez nekiela ezer askorik».

Iritsi zen azkenean hotelera, bidali zuen argazkia eta han geratu zen, Sevillako hotel batean bakarrik, Polizia bere bila etorriko zen jakin gabe. «Ordurako banekien argazkilari baten bila zebiltzala eta pentsatu nuen ezin nuela hotel horretan bakarrik gelditu. Trago batzuk hartzera atera nintzen eta goizeko laurak arte flamenkoa entzuten egon nintzen. Hotelera bueltan, ez nekien zer topatuko nuen. Azkenean, lortu nuen bueltako hegazkina hartzea. Eta, gainera, nire errebelatzeko kutxa aireportuan azaldu zen», segitu du Gilleneak. Euskal Herrirako buelta beti luzea izaten zen, tentsio horrekin ez baitziren aise iristen etxera. Emaitzak merezi zuen; orduan, ekintza horien berri eman zutelako, eta gerora, argazki horiek oinarritzekoak direlako ekintza koloretsu eta irudimentsu horien berri emateko.



Unai
ITURRIAGA

iRRITZIA:

Juan Vilduz

EHUN MILA
KAFE

EZ DA BADAIZPADAKO LANA KAFE GARAIK
BANAN-BANAN ESKUZ BATUTEA...



...GERO GEORGE CLOONEY ZUZTERBAKO
HORI ETORRI ETA KAPSULA BATZUEKAZ
MUNDUA HANKAZ GORA IMINTEKO.



KOKA LANDAREA EREITEKOTAN NENGOAN
MIRARIZKO DEI BAT JASO NEBANEAN.

EHUN MILA?!



ZELAN EZ,
KONPAI!

GUAYAQUILGO AMATXUE! ZELONGATIK EZ
BALITZ ASTO-OKELEA JATEN GENBILKEZ...

(ESON, HASITA GENGOZAN, GOKOIA ARGAZKI ZAHAR BAT DA)

AITTE SANABEL,
KJORRETAKO
ZERU ALTUKO
LORIE...



HALANDAZE, JUAN VILDUIZEN PARTEZ...



GORA
ELUSKADIA
ASKATUTA
ETA MUNDUKO
GALLEGO
GUZTIAK!

2002/
BT

INTEGRAZIOA SUSTATU, AURREIRITZIAK NOKEATU

Ruben PASCUAL | @GARA_rpascual

Kolpe bakoitzarekin integratziorako eta berdintasunerako urrats txiki bat eginez, egoera zailean bizi diren gazteei aisialdirako eta bizitzarako aterabidea eman asmoz sortu zen Salam boxeo taldea, Kolore Guztiak elkarte interkulturalaren proiektua.

Hona etortzea niretzat paradisuan ego-
tea bezalakoa da». El Mehdi Kazem
gaztearen hitz hauek ezin hobeki la-
burbiltzen dute Salam boxeo taldea-
ren filosofia eta bere kideentzako
duen esanahia. Gazte-gazterik atera
zen El Mehdi Marokotik eta jaioterria atzean utzita iri-
tsi zen Euskal Herrira. Hasierako garaiak ez ziren sa-
murrak izan berarentzat, kalean bizi behar izan bai-
tzuen. Egunean zehar egitekorik ez izateak are
gogorragoa egiten du kalean bizitzeak berezkoa duen
zailtasuna. Egoera iraultzeko bidean, El Mehdik ezin-
bestekoa izan du bere garaian Kolore Guztiak elkarteak
eskaini zion laguntza.

2006an jaio zen Kolore Guztiak elkarte interkultura-
lak etxerik gabe dauden edota bazterketa arriskuan
dauden neska-mutilekin egiten du lan. Erakundeek ere
era horretako babesak eskaintzen dituzte, baina pro-
grama instituzionalak hemezortzi urtetik beherako
gazteentzako izan ohi dira.

Aurrez egindako lan horri segida emateko jarri zuten
martxan Kolore Guztiak elkarteak. Egun, bi programa
nagusi jorratzen ditu. Alde batetik, sei harrera pisu
dauzka herrialdean barrena barreiaturik eta bertan 18
eta 24 urte bitarteko gazteak daude. Bizilekua eskain-
tzeaz gain, lan integrala egiten du elkarteak bertan bizi
diren gazteekin: formakuntza eskaintzen die, egunero-
koan jarraipena egiten diete... Beste alde batetik, bada-
go bigarren egitasmo bat, kalean bizi diren gazteei zu-
zendutakoa. Kasu honetan, informazioa ematen zaie
eta beren egoeraren inguruko jarraipena egiten da.

Karmelo Gonzalez hezitzaileak azaldu digunez, bes-
telako ekimenak ere sortu dira Kolore Guztiak elkar-
tearen inguruan, aipatutako bi egitasmo nagusi horien
osagarri. Tartean, Baraka antzerki taldea eta Salam bo-
xeko taldea daude. Azken honen gonbita onartu eta be-
raiekin ring-ean sartu gara, egiten duten lana gertutik
ezagutu eta bertan parte hartzen dutenen bizipen eta
sentsazioetan murgiltzeko asmoarekin. Benda eta es-
kularruak jarri beharrean, kamerarekin igo da GAUR8


eta gazteekin kolpeak trukatu beharre-
an, galderak eta erantzunak bota dizkio-
gu elkarri, gustura asko.

Gurekin hitz borrokaldia izatera Salam
taldean boxeoan ari diren El Mehdi Ka-
zem, Imanol Alonso eta Fran Martinez
gazteak bildu dira, baita Karmelo Gonza-
lez hezitzaile eta boxeo taldearen susta-
tzailea ere. Kazem eta Gonzalez dira tal-
dearen entrenamenduak antolatzearen
ardura dutenak. Ismail gaztearekin ere
eginda genuen zita, baina ez du gure hi-
tzordura heltzerik izan. Kanean bizi da be-
ra, Errenterian, eta handik hona mugitze-

ak suposatzen dion zailtasunak eragotzi
dio garaiz iristea.

Gonzalezaren boxeorako afizioa izan zen
talde hau sortzeko aitzakia eman zuena.
Harrera pisuetako batean zeuden lagune-
kin hasi zen lehen kolpeak trukatzeko eta
kirol hau agian modu antolatuago eta
irekiago batean egiteko ekintza aproposa
izan zitekeela otu zitzaion.

«Boxeoa kirol erakargarria zen gaztee-
tako batzuentzat –azaldu du–, eta pentsa-
tu genuen merezi zuela jarduera osasun-
tsu bat egitea, norbaitek zuzendua eta
helburu batzuk aintzat hartuta». Gure



Ismail gaztea kalean bizi da
eta Salam boxeo taldeko
kidea da.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



jendartean hain errotuta dauden aurreiritzien erruz, izango da uste duenik ezinezkoa dela balore batzuk, adibidez integrazioa eta berdintasuna, boxearen bitartez sustatzea. Azaletik haratago begiratuta, baina, elkarrekin dituen helburu eta baloreei ezin hobeto doitzen zaie boxeoa. Elkartasuna, parean dagoenarekiko errespetua, laguntasuna edota kiroltasuna dira, hain zuzen, jarduera honen giltzarri.

2013. urtean sortu zen taldea eta bi urte hauetan lortutakoaz harro mintzo zaigu Karmelo Gonzalez, dagoeneko 40 gazte inguru pasatu baitira berak martxan jarri zuen boxeo eskola xume horretatik.

Halako egoeran dauden gazteekin lan egiteak badu bere zailtasuna eta parte hartzen duten gazteen artean talde egonkor bat sortzea ez da erraza izaten. «Estabilitatea zaila da. Gurekin dauden gazte gehienak etorkinak dira eta askotan bizilekua aldatzen dute, formazio ikastaroren bat egitera joaten dira edo lanen bat aurkitzen dute», dio Gonzalezek, nahiz eta nabarmendu duen azken sei hilabeteetan, gazteen konstantziari esker, talde nahiko egonkorra osatzea lortu dutela.

LAN GOGORRAREN EMAITZAK

Beste kirol jarduera batzuek bezalaxe, konpromiso maila handia eta jarraikortasuna eskatzen du boxeoa. Ekinaren ekinez, Salam taldea ere egindako lanaren fruituak biltzen hasi da.

«Boxeoan aurrera egin eta zerbait lortu nahi badugu, lan handia egin beharra daukagu. Konpromiso hori edukitzea eta nolabaiteko diziiplina horren baitan lan egitea positiboa izan da gazteentzat». Gainera, egunerokoan pilatzen duten «karga emozionala» arintzeko ere balio izan diela argitu du hezitzaile eta Salam boxeo taldearen arduradunak.

Illo horretan, egiten duten lana integrala da. Afera ez baita gimnasio batera joan eta hiruzpalau instrukzio jasota kamiseta izerditzea, kirola egite hutsetik haratago doan jarduera bat da.

Beasaingo harrera pisuan hezitzaile lana egiten duen Gonzalezek azaldu digunez, gazteen artean harremana era berezian sustatzen da. Talde izaera oso presente izanik, bertan egindako harremanari esker, ring-etik kanpora dauzkaten arazoen gainean hitz egin dezakete eta bizipenak konpartitu ditzakete.

Horrez gain, badira beste premisa batzuk kirol jarduera honetan parte hartu nahi duten neska-mutilek errespetatu behar dituztenak, funtsean, entrenamendu saioetara inolako substantziarik kontsumitu gabe joatea eta saioetan ikasitakoak kalean ez erabiltzea, esaterako.

«Kaleko bizi-baldintzak oso gogorrak dira eta ez da zaila gatazkaren baten aurrean gaizki erantzutea», esan du Karmelo entrenatzaileak, baina berehala argitu digu taldea sortu zutenetik ez

Goiko aldean, boxeolari taldea ring-ean. Ezker-eskuin, Imanol Alonso, Fran Martinez, El Mehdi Kazem eta Karmelo Gonzalez, Kolore Guztiak elkarteak sortutako Salam boxeo taldeko kideetako batzuk.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

dutela mota honetako inolako arazorik izan.

Lehiatzea helburu ez duten arren, gazteetako batzuek ikasitako ring baten gainean frogatzeko grina izan dute. Haien artean, El Mehdi Kazemen kasua dago. Salam taldearekin lanean hasi zenean, kalean bizi zen eta gogor lan eginez erabaki zuen lehiaketaren mundura jauzi egitea. Salam gimnasio ofiziala ez denez, Anoetako boxeo taldeak eskaintzen die nahi duten lagunei lehiaketarako pauso hori emateko aukera.

Kazemena ez da marka makala; ofizialki lehiatu zen lehen aldian Gipuzkoako txapeldunorde izatea lortu zuen. «Ilusio handia eman zidan, nire helburuak lortzeko pauso handi bat izan zen», dio, harro.

Ring-era Anoetako taldearekin igo den arren, oso argi dauka Kazemek bere jato-

Kalean bizi diren edo bazterketa arriskuan dauden gazteekin lan egiten duen Kolore Guztiak elkarteak 2013. urtean sortu zuen Salam boxeo taldea, integrazioa eta berdintasuna sustatzeko asmoarekin

Sortu zenetik, 40 gazte inguru pasatu dira boxeo eskola berezi honetatik. Kirola egite hutsetik haratago, bizipenak konpartitu eta elkarri laguntzeko tresna egokia dela erakutsi du denborak eta etorkizunerako bidea markatu du



ria. «Ni Salamekoa naiz –nabarmendu du, irribarretsu–. Dakidan guztia hemen ikasi dut, lehiatzera Anoetakoekin joan naizen arren».

Orain, ikasitakoa Salameko kideei transmititzen aritzen da, buru-belarri. «Astean behin klasea nik emateko aukera eman dit Karmelok eta, modu horretan, nire esperientzia kideekin konpartitu dezaket», azaldu du.

Gaur egun, El Mehdi bere kideetako askorentzako «erreferente polita» dela aitortu digu Gonzalezek. «Zerotik hasi zen, gauzak oso zail izanda, eta gaur egun bizitza normalizatu bat izateko behar diren helburuetako asko lortu ditu».

El Mehdi Kazemen jarrera hau, gainera, ez da kasu bakan bat. Imanol Alonsok sei hilabete daramatza taldekide gisa. Fran Martinez lagunaren bitartez ezagutu zuen Salam eta poz-pozik mintzatu da hain epe laburrean egindako aurrerapenaz.

LAGUNTASUNA ETA KIROLITASUNA

«Laguntza ematen digutenean, gure mentalitatea aldatu egiten da eta jasotako laguntza hori beste bati ematen saiatzen gara». Hitz horiekin azaldu digu Alonsok Salametik atera duen ikasgaietako bat.

Ez dago ados, gainera, jendeak boxeoaz duen irudiarekin. Beste zerbait da beraren ustez. «Ez da beste pertsona bat besterik gabe jotzea. Boxeatzen dugune-

an –adierazi du–, pentsatzen dugun gauza bakarra geure burua hobetzea da». Aitortu digunez, batek baino gehiagok galdetu dio ea bertan ikasitakoak kalean borroka egiteko balio izan dion. «Guztiz kontrakoa esango nuke nik, hemendik erlaxatuago ateratzen gara, lasai, eta kalean ahaztu egiten ditugu borrokak».

Kirol mailan izan dezakeen balioaz gain, oso nabarmena da bai Salam taldeak bai Kolore Guztiak elkarteak egindako lana oso baliagarri zaiela gazteei, kultura asko ezagutzeko parada ederra daukate-lako.

Nork bere jatorria eta sinesmena edukita eta besteena errespetatuz, bai Salam-en entrenamenduetan bai Kolore Guztiak-en etxebizitzetan eta sustatzen dituzten gainerako ekintzetan bizikidetzatza erabatekoa daukatela nabarmendu digute. Fran Martinezek, esaterako, urteak daramatza jatorri arabiarreko pertsonekin etxebizitza partekatzen eta, inolako arazorik izan ez duela kontatzeaz gain, haiekin ikasitakoak asko balio izan diola esan digu. «Jende berria ezagutzen dugu, lagun berriak egiten ditugu... Kultura gehiago izaten laguntzen digu».

Sorreratik izan duen bide oparoarekin ez dira konformatzen Salameko gazteak. Hala, etorkizunari begira hainbat erronka daukatela esan digu Karmelo Gonzalezek. Lehenik eta behin, esku askoren arteko lankidetzari esker sortutako bo-



xeo taldeari eustea eta hura kontsolidatzen jarraitzea dute helburu.

Salam taldean, emakume gehiagoren parte-hartzea sustatzea eta azpiegiturak apurka-apurka hobetzea ere espero dute. Gainera, integrazioaren arloan lan egiten duten bestelako eragileekin harreman estuagoa izan eta Gipuzkoako Aldundiak ematen dien sostengu ekonomikoaren osagarri izango diren bestelako finantzazio bide batzuk bilatzea ere badaude beren egitekoen zerrendan. Galtzak bete lan, beraz.

Dilin! Bukatu da Salam boxeo taldearekin ring gainean izan dugun topaketa berezi hau. Bukatu da gure borrokaldi bitxia, oraingoz bederen. Salam boxeo taldearen bidea, aldiz, ez da inola ere bukatu, indartsu begiratzen baitiote etorkizunari. Oparoa izan dadila.

El Mehdi Kazem Salam taldearekin hasi zenean, kalean bizi zen. Gogor lan eginez lehiaketaren mundura iritsi zen eta lehen saiakeran Gipuzkoako txapeldunorde titulua lortu zuen. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Joko zelaia

Txanponetan neurtu izan bagenu beti gure ametsen balioa, hemen aurrean zaudeten hainbat proiektu ez ziren sekula martxan jarriko. Hitz hauekin eman zion hasiera Estitxu Eizagirrek aurtengo Argia sarien banaketa ekitaldiari. Ez zitzaion arrazoirik falta.

Komunikazioa boterea da. Txanponak edukitzeak gehiago laguntzen du, ez edukitzeak baino. Zer eta Nola galderei, azkenaldian, Zenbat gailendu zaie. Irismenari erreparatzen zaio orain. Ikusle, entzule, irakurle kopuruak zehazten du komunikabide baten balioa. Jakina da. Arrain handiak arrain txikia jaten du. Hori da logika. Hori du logikak.

Dena ez da matematika hutsera mugatzen, ordea. Bi gehi bi, zorionez, beti ez da lau. Zuriaren kontrakoak ez dauka beltza izan beharrik. Nola esplikatu mundua bestela? Nola esplikatu gure Herria? Sistemaren akatsak posible egindako salbuespenak ote ziren denak han?

Joan den astean Argia astekariak saritutako “Zebrabidea” irratsaioa, zer edo zer izatekotan, eskola bat izan da bertan parte hartu dugunontzat. Komunikazioa ulertzen, eta unibertsitateko urteak interesgarriago bihurtzen, lagundu digun espazio konpartitua. Mikrofono aurrean hitz egiteari beldurra galtzeko lehenengo saiakeren lekuko. Taldean lan egiten trebatu gaituen laborategia. Gure mundutxoa hobeto ezagutzeko leiho bat. Gure inguruan isilean geratzen ziren kontu askoren bozgorailu. Elkarlanaren garrantzia, modu inkontzientean, barneratzeko balio izan duen ariketa kolektiboa.

Dena ez da urre, baina badu nondik tira. Ez baitira gutxi “Bagazina” edota haren jarraipen den “Zebrabidea”n lehen pausoak eman eta gaur egun bestelako herri ekimen edo komunikabideren batean dihardutenak. Ezinezkoa litzateke, bidean baten bat ahaztu gabe, urte hauetan guztietan Hala Bedi irrastian sortu zen magazinean musutruk kolaboratu dutenen zerrenda osoa egitea. Lerro gehiegi zebrabide bakarrean kabitzeko.

Periferian bizi zaretenok jakingo ez baduzue ere, Arabako entzuleei arratsaldero aktualitatearen berri ematen zien bi

orduko irratsaio hark, duela hamar bat urte, hiru orduko saio bihurtzeko apustua egin zuen. Araban bakarrik entzutetik, Arrosa sareari esker, Euskal Herrian zehar entzutera pasatu zen gero. Irrati bakarrek ekoizten zuena, egun, elkarlanean pentsatu eta egiten da.

Ez dira gutxi izan bidean pilatutako zalantza, neke eta frustrazioak. Ez delako erraza, ez gaitezen engaina, soldatapeko langilerik gabe tamaina horretako irratsaio bat mantentzea. Are zailagoa, lan horren emaitza kalitatezko produktu bat izatea. Mirari txiki bat? Salbuespen zoragarri bat gehiago, akaso? Kasualitateak, hala ere, ez dira berez etortzen. Bilatu egin behar izaten dira. Saiatu gabe ez dago lortzerik, hanka sartu gabe asmatzerik ere ez.

Lagun batek aurrekoan kontatzen zidanez, nekez iraungo luke zebra batek aste bat baino luzaroago Afrikako sabanan berak bakarrik. Taldean elkartzen direnean, aldiz, marra zuriak marra beltzekin nahasten direlarik, harrapakariak zailtasunak izaten dituzte animalia bakarra multzotik bereizteko. Horrek babesten ditu. Horrek egiten ditu indartsu. Beraien berezitasunak, bestela, ez du askorik balio. Alfonbrak egiteko ez bada. “La2”-eko dokumentalen batean entzun eta elkarlana goraiatzeko merke erositako metafora bat izan zitekeen. Lagunak, alabaina, benetan bota zidan, eta nik sine-

tsi egin nion. Komunikazioa boterea delako, esan dugu hasieran ere. Errealitatearen gaineko kontakizun zehatz bat ezartzeko balio du. Eta komunikabideak, aldi berean, komunitate bat eratzeko funtsezko tresnak ere baditugu. Norbanakoei komunean dutena taldean partekatzeko bide ematen dute. Dialektika horretan, eta komunikazioaren baitan, gauzatzen da gizartea. Ikusten ez dena ez baita existitzen, entzuten ez dena ez dago, irakurtzen ez duen herriak nekez eutsiko dio historiaren uholdeari. Sustatzetik gauzatzera pasatzeko ordua heldu dela entzun nion ekitaldi berean beste norbaiti. Auto-eratzeko horretan, duarik gabe, komunikabideak erabakigarriak izango dira aurrerantzean. Partida, neurri handi batean, hor jokatzen da. •



«Zebrabidea» irratsaioak Argia saria jaso du duela gutxi.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Noiz den une egokia eta hormak

Azken zutabea aipatu nuen Karl Ove Knausgard idazlearen hitzaldi batera nindoala. Kuriositate handia nuen bera pertsonalki ezagutzeko, bere lanetan hainbeste biluzi den batek publikoaren aurrean jarra berdina hartzen ote zuen frogatzeko. Norbaiten lanak irakurtzen dituzu eta buruan beste pertsonaia bat sortzen du. Nire buruan zegoenaren eta benetakoaren artean zein gainezartze zegoen jakin nahi nuen.

Hitzaldia baino egun batzuk lehenago, liburu dendatik abisu bat bidali zuten, tamalez Knausgardek ez zuela etortzerik. Tore Rensberg idazle norvegiarra bakarrik etorriko zela. Ezer gutxi nekien berari buruz, itxaropen gehiegirik gabe joan nintzen, desengainu apur bat gainean.

Ekitaldia hasi aurretik, Knausgarden editoreak, idazleak idatzitako eskutitz bat irakurri zigun, bi orrialde gutzira. Zergatik ez zen etorri azalpena zen. Liburuek izandako arrakastarekin, hilabete asko pasatu omen zituen batera eta bestera, aurkezpenak eta elkarrizketak egiten. Saltzaile bihurtu zen sententzioa omen zuen. Beste biluzte mota bat zen. Ez zuena atsegin. Eta, gainera, une bat iritsi omen zen, ahaztu egin zitzaiona zergatik idatzi zuten liburuak. Ez zen pertsona bera. Horregatik, bere liburuei buruzko elkarrizketa gehiago ez egitea erabaki zuen. Ez zen berdina, baina berezia izan zen unea, desengainua eramangarriagoa zen jada.

Segidan, Tore Rensberg, Knausgarden lagun minetako bat dela jakin nuen eta horrek, pertsona ezagutu aurretik aurreiritzi positibo bat sortu zidan. Aurreiritziz betetako pentsamenduekin osatuta gaude. Denbora faltagatik. Aukera gehiegi dagoelako. Kuriositate gehiegi daukagulako. Kasualitatez gauza bera zioen Renbergekin, aldaketa beharra sentitzen zuela uneoro, inpatientzia, bizitzako abiadura aldatu beharra, gauza berriak esperimentatzeko nahia. Horrek gehiago gerturatu ninduen, bere pertsonaiaren erretratua fintzen joan nintzen nire oroimenean. Bigarren aldiz liburuak irakurtzeaz aritu zen beste gauza batzuen artean. Dostoiveski aipatu zuen.

Dostoievskiren “Crimen y Castigo” liburuak Rodión Raskólnikov protagonistak eraiketa bat burutzen du. Bere teoria psikologikoaren bidetik, gizarteko goi mailako multzo horretan ikusten du bere burua eta multzo horretan krimena zilegi da ongi-izatea lortzeko. Norvegiako Utoya irlan Alderdi Laboristako gazteen elkarretan eta Oslo izandako atentatuaren ostean, berriro liburuak hartu zuen eta ezin izan zuen bigarren aldiz irakurri. Muga bat aurkitu zuen.

Kafka, Huxley eta Kunderaren liburuak irakurri nituen lehenengo aldiz oso gaztetan, hamasei urte azpitik nituela. Gogoan dut, baita ere, oraindik gazteagoa nintzela, hamahiru urterekin Orwellen “Abereen Etxaldea” Segurako eskolako liburutegitik hartu eta irakurri nuela. Liburuaren azaleko argazkiak erakarrita ziurrenik, ez behintzat Napoleon txerria eta Stalinen parekotasuna aztertzeke. Hamabost urterekin “Metamorfosis” liburuaren txostena egin nuenean, gogoan dut irakasleak galdetu zidala zergatik aukeratu nuen Kafka. Pena da ez naizela gogoratzen zer erantzun eman nion, eta ez dudala gordeta eskuz idatzita egindako txostena. Gerora, liburuak bigarren aldiz irakurri ditudanean, galdera berriak sortu dizkirate. Beste muga batzuk topatu ditut, orduko inozentzia eta aurreiritzirik gabeko pentsamenduak ez dira azaldu.

LEHENAGO EDO BERANDUAGO, PARETA IKUSEZIN BAT

Knausgardengana itzuliz, PENen sari banaketa batean hitzaldi bat eman zuen aurreko astean. Hainbat gauzak atentzioa eman zidaten, horrela zioen: zerbait idazten duen pertsona orok, liburu bat izan, nahiz zutabe bat edo tweet bat, lehenago edo beranduago pareta ikusezin bat aurkituko du, esan daitekeenaren eta isilik egon behar garenaren arteko muga hori irudikatzen duena. Muga horrek badu zerbait erakargarria, debekatutako hori dagoelako bestaldean, eta zeharkatzen badugu ondorioak izango dituelako niretzat edo nire ingurukoentzat. Horma ikusezin hori hori da, gu eta «beste horren» artean dagoena. Ikusi nahi ez dugun hori, nahi ez dugun hori, onartu nahi ez dugun hori. ...

Erreferentzia interesgarri bat egiten zuen, lehen aipatzen nuen zerbaiten ildotik. Nazismoari buruz idaztea erabaki zuenean, Hitler-ek idatzitako “Mein Kampf” manifestua irakurtzea erabaki omen zuen eta aireportu batean erosi omen zuen liburuak. Hegazkinean zegoela poltsatik liburuak ateratzera zihoala, barnean sentitu zuen “zerbaitek” liburuak poltsan uztera behartu omen zuen; liburuak ez zelako “egokia” hegazkin baterako, ezinegon fisiko bat sortzen zion; etxeko apalean liburuak edukitzeak sortzen duena bezalakoa. Hor zegoen horma hori berriro ere. Horrela amaitzen zuen bere hitzaldia: barneko eta kanpoko erresistentzia hori gainditzen badugu bakarrik bihurtzen da agerikoa horma hori, muga azaleratzen da eta ikusgai bihurtzen, eta orduan gure balore moral horiek negoziatu daitezke eta beste identitate bat posible bihurtzen da.

Egin salto marratik. Amildegira. *Je suis Charlie*. Ni ere bai. •

Herri baten ari-
ma bere dan-
tzetan, erri-
t u e t a n ,
ohituretan,
musikan go-
tortuta dagoela sinetsita, kasik
mende erdia darama Juan Anto-
nio Urbeltzek euskal folklorea
ezagutzen, ikertzen, ulertzen eta
jasotzen. Inauteriak datozen ho-
netan, gure jatorriaren inguru-
ko hainbeste pista bildu ditue-
narengana joan da GAUR8. Zer
dira inauteriak jatorriz? Urbeltz
askotariko jakintza biltzen duen
liburu potolo bat da. Liburu ho-
rretako pasarte gutxi batzuk
baino ez ditugu zabaldu elka-
rriketa honetan.

**Urte asko dira euskal folklorea
ikertzen hasi zinela. 1966. urte-
aren hasi zenuen bidea, zer-no-
lako egoera topatu zenuen
inauteriei dagokienez?**

Tristura handia zegoen Euskal
Herrian. Gerrak, goseak eta erre-
presio gogorrek marka latzak
utzi zituzten. Industria sare
nahiko interesgarria genuen eta
horri esker jendeak lan egin ze-
zakeen eta bizi zitekeen. Baina
horrek maiz nahasmena zeka-
rren, benetan geunden baino
hobeto geundela irudikatzen
zuelako. Ohiturek, errituek,
inauteriek ez zituzten garai opa-
roak bizi. Baina arakatuz, galde-
tuz eta ikertuz, horien berri ja-
sotzen hasi ginen.

**2007. urtean, «Danzas morris,
origen y metáfora» liburuan,
inauterien interpretazio berri
eta propio bat jarri zenuen ma-
hai gainean.**

Euskaldunak inauteriak edo
aratusteak ditugu. Izenak berak
asko esaten du, gureak ez baiti-
ra *carnaval*. *Carnaval* hitzak
carne hitzarekin dauka lotura,
haragiarekin. Esanahi erabat
kristaua eman zaio horri, uler-
tzen baita *carnavaletan* haragia
jan daitekeela eta gero datorren
garizuman haragia debekatuta
dagoela. Baina gurean jaia ez
zen *carnaval*-garizuma, inaute-
riak-San Joan baizik. Inauteriak
edo aratusteak ez daude kris-
tautasunari lotuta, lurrari, ne-
kazaritzari eta naturari lotuta

*«Inauteriak
mundua aldrebes
jartzeko egunak
dira; herrietan
gizartea zomorrotu
egiten da eta
hirietan herritarrak
normalean ez
direna izaten dira.
Erabateko
askatasun egunak
dira»*

*«Hainbeste urtetan
bestelako
interpretazioak
entzun dituenek,
jendeari nire tesiak
harrigarriak
iruditzen zaizkio.
Norbaitek euria
behetik gora egiten
duela esango balie
bezala geratzen
dira»*

baizik. Inauteri hitzak inausire-
kin dauka lotura, eta landare
bati adar gehienak ebakitzea
esan nahi du. Eta aratu hitzak
kimatutako zuhaitzak landa-
tzea esan nahi du, eta Bizkaian
erabiltzen da. Bi hitzek lotura
zuzena daukate kimaketarekin.
Baina historikoki interpretazio
okerra egin da, nire ustez, ara-
tuste hitza *haragi uzte*-rekin lo-
tu baita. Baina nola da hori po-
sible Bizkaian haragiari okela
esaten bazaio?

**Beraz, inauteriak naturari lo-
tuta daudela diozu.**

Erabat. Finean, inauteri garaia
natura larba egoeran dagoen sa-
soia da. Zomorrotu guztiak zuhai-

tzetan eta landareetan larbatuta
daude, udaberria noiz iritsiko
zain, natura loratzen denean
zuhaitzen eta landareen zatirik
bigunenak jateko. Horregatik,
laborarien ikuspuntutik beha-
rrezkoa da sasoi honetan zuhai-
tzak kimatzea, larba guztiak eza-
batzeko. Zomorrotu larba
egoeran daude inauteri garaian
eta horregatik gizartea zomo-
rotu egiten da, mozorrotu, hain
juxtu, zomorrotu kontrako konju-
rura da inauterietakoa. Hala ere,
gure aurreko nekazariak bazeki-
ten naturak, azkenean, bere era-
bakiak hartzen dituela eta dato-
rren bezala hartu behar dela.

**Zergatik egiten duzu inaute-
riak-San Joan lotura hori?**

Inauterietan zomorrotu larba
egoeran daudenez, zuhaitzak
eta landareak kimatu eta zomo-
roen kontrako konjurua egiten
da. Eta San Joan gauez, zomorro-
ak ja libre eta ugari daudenean,
sua pizten da, bizirik geratu di-
ren horiek uxatzeko. Inauterie-
tan hasitako prozesuaren jarrai-
pena da San Joan bezperakoa.

**Zure arabera, jendartea zomo-
rotu egiten da inauterietan.**

Bai. Izan ere, jantzia edo mozo-
rroa ez da bakarkakoa, gizartea
mozorrotzen da, komunitatea.
Era horretan, zomorrotu egiten
da eta gaizkia irudikatzen du,



«Gure arbasoek zomorroen kontrako konjurua egiten zuten inauterietan, horiek uztatik uxatzeko»

naturarentzako kaltea. Etxez etxe edo baserriz baserri joaten dira mozorroak, eta herritarrek hamarrekoa ordaintzen diete. Hartara, ulertzen dugu zomorroekin zorrak kitatu ditugula eta dagoeneko ez direla gurera azalduko hurrengo udan. Dagoeneko ordaindu diegu eta, beraz, ezin dute bueltatu. Hori da konjurua, zomorro izurriteen kontrakoa. Garrantzitsua da binomio hori nabarmentzea: puska biltzea, etxez etxe egiten den eskea, eta mozorroa. Hartara, gizartea zomorrotu egiten da eta puskak biltzen ditu, zomorroak ez daitezen udan etorri eta ez dezaten uzta hondatu. Euskal Herriko inauterietako pertso-

naia asko zomorrotik datoz: mamu, mamarru, momorrotxo, mamutx... Herrietako inauterien baitan zomorroen kontrako konjurua dago.

Interpretazio horren arabera, inauteriek ez zeukaten hainbeste festatik, ezta? Izan ere, zomorro izurrite bat izatea gauza larria zen gure arbasoentzat.

Azken berrehun urteetan inauterien interpretazio baikorra nagusitu izan da. Ilustrazioak argia ekartzeko eta sineskeriekin bukatzeko saiakera egin zuen. Hor-tik ulertu daiteke inauterien inguruan osatu den irakurketa; Ilustrazioak aurrerabidearen ideari eusten dio, eta nekazarien kasuan emankortasunari. Hartara, ilustrazioak esaten du inauterietan nekazariak natura esnatzen duela emankorra izan dadin.

Baina gure arbasoak, baserritarrak, ez zeuden giza aurrerabidearekin kezkatuta. Benetan kezkatzen zituena etorkizun hurbila zen, erabat naturaren mendekoa. Eta baserritarrek ederki zekiten natura aleatorioa zela, une batetik bestera alda zitekeela eta uztak eta bizitzak haren mende zeudela. Horregatik, inauterietan zomorroen kontrako konjurua egiten zuten, gauza txarrak uxatu nahian. Gauza onak berez etortzen zirela zekitelako. Gure inauteriak drama txikiak dira, drama izugarri ederrak, baina erabat fatalistak. Finean baserritarrak badakiela, egiten duena eginda ere, naturak bere legea daukala.

Ituren eta Zubietako joaldunak. Zer diozu horri buruz? Natura esnatzeko aritzen direla esan ohi da.

Ez zait zuzena iruditzen. Ituren eta Zubietako jendeak asko daki naturaren inguruan, lurrari lotuta bizi den jendea da eta ederki dakite natura ez dela esnatu behar, bera bakarrik eta nahi moduan esnatzen dela. Nire ustez, garbi dago zomorroen kontrako konjurua Ituren eta Zubietako joaldunen kasuan. Finean, zertarako jartzen zaizkie joareak abereei? Ba zomorroak uxatze-

ko. Eta joaldunek eskuan eramaten duten zaldi edo behor isatsak ere horretarako balio du, zomorroak uxatzeko. Abereek horretarako erabiltzen dute isatsa, mandeuliak eta ezparak uxatzeko. Gertatu dena da Elizak jaia bereganatu nahi izan duela, eta joareetan gurutzeak marraztu dituela, esanez deabruak uxatzeko erabiltzen direla joareak. Baina gure arbasoen ikuspegitik benetako deabrua ezpararen zomorroa zen, beren lana eta biziraupena arriskuan jartzeko gaitasuna zuelako.

Duela kasik 50 urte ezagutu zenituen Ituren eta Zubietako inauteriak. Aldaketak sumatu dituzu ordutik, ezta?

Emaztea eta biok 1968. urtean egon ginen lehenengoz Ituren eta Zubietako inauterietan. Eztei bidaiatik bueltatu berri-tan joan ginen, eta gaua joaldunekin pasatu genuen txabola batean. Desberdinak ziren inauteriak. Sei-zortzi gaztek osatzen zuten joaldunen taldea, denak gizon-nezkoak, eta gauez ateratzen ziren. Gainera, ez zen jakiten noiz aterako ziren joaldunak, zeintzuk ziren eta zein etxetatik aterako ziren. Magia handia zegoen, eta joaldunentzat oso garrantzitsua zen inork ez ezagutzea. Gauez etxe batean jantzi eta isilpean ateratzen ziren. Horretarako, joareetan belarra sartzen zuten, soinua egin ez zezaten. Isil-isilik sartzen ziren etxeetara, ukuiluetatik askotan. Gainera, garai hartan etxe guztiak irekita zeuden. Sukalderaino igo, han elkarri lagundu joareetako belarra kentzen eta soinua ateratzen hasten ziren. Hala, etxe-koak esnatu eta ohetik altzarazten zituzten. Haurrek sekulako saltoa ematen zuten eta beldurrez egoten ziren. Hel-duek, aldiz, bazekiten nola ziren kontuak, haiek ere joaldunak izan zirelako gaztetan.

Berezkoa dute inauteriek bihurrikeria hori, ezta?

Bai, bihurriak dira inauteriak. Eta bazuten beste ezaugarri bat, gordinagoa. Horregatik ez zen emakumerik izaten joaldunen taldean. 20-24 urte bitarteko gi-



Argazkiak: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

JUAN ANTONIO URBELTZ

ANTROPOLOGOA ETA FOLKLORISTA

Asko daki euskal dantzez, errituez, ohiturez eta inauteriez. Urbeltzek irakurketa oso propioa eta desberdina dauka euskal inauterien inguruan

amagoia.mujika@gaur8.info

zonezkoak ziren, hiru hamaiketako eta lau kopakada patxaran hartutakoak. Inauterietan zeuden, dena libre zen egunetan, gizon eta emakumeen arteko harremanak ez ziren orekatuak eta, gainera, aurpegia tapatuta joaten ziren. Emakumeentzat giro arriskutsua zen, zalantzarik gabe. Amak eta amonak horren jakitun ziren, akaso gaztetan euren larruan sufritu zutelako, eta zuzenean debekatu egiten zieten etxeko neska gazteei joaldunen artean ibiltzea. Inauteria askatasuna da, bai, baina batzuentzat bakarrik. Garai bateko gizarte txiki horietan emakumeek ez zuten inauterietan parte hartzeko askatasunik, giro arriskutsua zen haientzat. Zorionez, hori aldatu egin da. Gizonen eta emakumezkoen arteko harremanak desberdinak dira, joaldunek aurpegia bistan daramate, egunez... gauza asko aldatu dira.

Lantzeko inauteriaren ariman ere zomorrotzea al dago?

Nire ustez, bai. Pertsonaia nagusiak honakoak dira: Miel Otxin, Ziripot, zaldikoa, txatxoak eta perratzaileak. Jendeak Miel Otxin erraldoia bidelapurrekin lotzen du, gaizkiarekin. Nire ustez, Miel Otxin gosea da, inoiz asetzen ez den erraldoia. Inoiz betetzen ez den sabel erraldoi bat da. Miel Otxin gosea da.

Bere ondoan zaldikoa daukagu. Europako hizkuntza guztietan, oti deituriko intsektuari *zaldiko* esaten diote. Espainolez, *caballeta*; italieraz, *saltacavaglia* (zalditxo saltaria); frantsesez, *pouchinchin*, (moxala edo zaldiko saltaria)... Euskaraz ere modu asko daude otia izendatzeko; horietako bat, larraputinga. Baztan inguruan larraputinga esaten zaio larrean putinka ari den eta ostikoka dabilen zaldiari. Finean, dena irensten duen zaldikoari buruz ari dira, otia izeneko intsektu txiki eta hilkorriari buruz.

Ziripot, berriz, intsektua bera da, baina aurreko fasean, larba fasean. Horregatik da hain gizona. Eta txatxoak eromena jota dauden herritarrak dira, izurritearen eta gosearen beldur di-



IBILBIDEA

Juan Antonio Urbeltz (Iruñea, 1940) koreografo, antropologo eta folkloristak Euskal Herriko ohiko dantzen bilketa abiatu zuen 1960ko hamarkadan, ondare hori berreskuratzeko, biziarazteko eta berritzeko. Geroztik, lan mordo argitaratu du bidean topatu dituen altxorak eta horien inguruko bere gogoetak bilduz. Nazioarteko sari garrantzitsuak jaso ditu.

ren eta erotu diren herritarrak. Zaldikoak ostikoak ematen dizkio Ziripoti bere sasoia pasatu zela adierazteko. Orain dagoeneko zaldikoaren garaia dela esateko, ez larbarena. Bitartean, txatxoak, erotuta eta nahastuta dauden herritarrak, Miel Otxin kontrolatu nahian dabilta, gosea aske uztea arriskutsua delako. Herrira ekartzen dute, epaitu eta akabatu egiten dute. Mezua garbia da: gosea ezin da aske utzi, kalte handia egin baitezake. Finean, inauteriek gertatuko denaren inguruko kezka adierazten dute, eta gaizkia uxatzeko konjurua dira.

Txoko horietako herritarrek zer diote zure tesien inguruan?

Duela urte pare bat Mikel semeak eta biok hitzaldi bat eman genuen Iturenen, tesi hauen inguruan. Jendea harrituta geratu zen. Hainbeste urtetan bestelako interpretazioak entzun dituztenez, nire tesiak harrigarriak iruditzen zaizkie. Norbaitek eu-

ria behetik gora egiten duela esango balie bezala geratzen dira. Nire tesiak dira, inor ez dago behartuta ados egotera, eta ulertzen dut jendearen harridura hori.

Hirietako inauteriak bestelakoak ziren, ezta?

Bai, hirietakoa beste gauza bat zen. Donostian, esaterako, oso inauteri interesgarriak izan ziren XIX. mendean. Konpartsa mordo zegoen eta beren esanahi sinbolikoa arketipoarekin lotuta zegoen. Erabateko askatasuneko egunak ziren, ez mozorrotzeko egunak bakarrik, batez ere ohiko harremanak hankaz gora jartzeko egunak. Inauterietan dena libre zen, baina gero, asteartitan, denek garbi zuten non esnatuko ziren. Egunerokora bueltatzen ziren.

Inauteriak mundua aldrebes jartzeko egunak dira; herrietan gizartea zomorrotu egiten da eta hirietan herritarrak normalean ez direna izaten dira.

Eta kaldereroei buruz, zer duzu esateko?

Oso festa polita da kaldereroena, izugarri gustatzen zait. Kaldereroak ijitoak dira, modu ibiltarian bizi direnak, sustrairik gabe. Gure arbasoen begietara kaldereroena inoiz nahiko ez luketen bizimodua da. Gure aurrekoentzat etxea, lurra, familia... oinarriak dira, lotura estuak. Horregatik, haientzat ijitoen mundua, gurdi batean munduan hara eta hona ibiltze hori, izugarria zen, pentsaezina eta saihestu beharrekoa.

Eta bukatzeko... Sekretuan gorde behar omen da, baina, nola mozorrotuko zara?

Egia esan, ni transzendentalegia naiz mozorrotzeko. Gustura egoten naiz besteei begira, baina mozorrotzeko behar den freskotasuna falta zait. Baina zer edo zer asmatuko dugu. Etxean topatzen dudanarekin inprobisatzea gustatzen zait, eta aurtene egingo dut zerbait.

Psikologia positiboa

Joxean Agirre

David Foenkinosen pertsonaia batek dio ez dagoela pentsamendu positiboa baino gauza deprimentagorik eta errealtatea ukatzen duten politikari profesionalen optimismoaz ari zela iruditu zait.

Beste arlo batzuetan, musikan edo literaturan, esate baterako, ezkorra izatea baita arau. Adibide erraz bat gogoratzearen, kontatzen dute Janis Joplinek oso gutxitan egiten zuela lo bakarrik, bere maitale zerranda ikusgarria baita, baina bere kanta guztietan bakardadean bizi den emakume bat ageri da. Literaturan ere zenbat eta zorigaitz gehiago erortzen zaizkion gainera pertsonaia bati, orduan eta sinengarriago gertatzen da. Politikari bati, ordea, mikrofono bat jartzen diozu sudurraren parean eta krisialdia gainditzen ari garela frogatzen hasiko zaizu.

Gogoan dut behinola kontrol mentalari buruzko ikastaro batera bidali nindutela. Hotel handi bateko aretoan eseri ginen

borobilean eta, horrelakoetan egin ohi denez, bakoitzak ikastaroan izena emateko izan genituen arrazoiak kontatzeko eskatu zigun irakasleak edo coach-ak edo dena delakoak. Lehenak alkoholikoa zela esan zuen eta irakasleak berehala zuzendu zion: «Lehen zinen alkoholikoa, baina dagoeneko ez zara». Bigarrenak depresioa aipatu zuen eta hurrengoak minbizia. Neu nintzen han sano samar zegoen bakarra: erreportaje bat egitera bidali nindutela esan nuen. Beste guztiei behin eta berriz errepikatu zien ekarri zuten arazoa ikastarora sartu ziren unetik hasi zela desagertzen.

Hain zabaldua dagoen pentsamendu positibo horren errua Martin Seligmanek izan dezake, Psikologia Positiboaren aitak. Bere jarraitzaileek behin eta berriz errepikatu digute helburu bat oso garbi izatea aski dela (dirua, lanpostu bikain bat edo bikotekide ametsetako bat) lortu ahal izateko eta lortzen ez badugu, pen-

tsamendua ondo erabili ez dugulako dela.

Batek pentsa dezake pentsamendu positiboaren kontu hau (autolaguntza metodoak, coach-ak eta aholkulari motibatzaileak) AEBetatik datorren haizea ote den, baina badirudi zabalagoa dela. Milan Kunderaren “Broma” eleberrian pertsonaia batek postal bat bidaltzen du esaldi honekin: «Optimismoa herriaren lo-belarra da». Eta Siberiara bidaltzen dute lanera. Stalinen aroan artea eta literatura kontrolatzen zuten zentsuratzailerik ez zuten heroi pessimistarik onartzen. Eleberrietan bi baldintza bete behar izaten zituzten idazleek, heroiek baikorra eta alaia izan behar zuten eta produkzio sistema aurrera zihoala erakutsi. Gu geu ere, hain urrutira joan gabe, «alaiak eta konbatiboak» ginen orain dela gutxi. Politikari profesionalen baikortasuna deprimentea da. Oso besterik da, ordea, optimismoa, egunotan Grezian bezala, kolektiboa denean. •

Eman pausoa

Saioa Iraola

Zerbait gustuko ez baduzu «#daelpaso» dio Kaiku Sin Lactosaren iragarki berriak. Iragarkian emakume langileak ageri dira pauso eta mugimendu arinaz bulegoan, kalean, igerilekuan, etxean hurrekin, supermerkatuan, arropa dendan, eta abar. Ama, lagun, langile eta maitale direla, garela dio iragarkiak. Mundua hozkada batez jateko desiraz, helburu dugun bakarra ongi sentitzea, aske sentitzea dela azpimarratuz. «#daelpaso» izanik gaur egungo emakume moderno eta todoterrenoentzako lema. Norbera, gutako bakoitza bereziak garela, gure denbora libreari zukua ateratzen asmatu eta leku denetara iristeko gai garela, ez dugula lan berbera egiteagatik gutxiago kobratu behar edo klixeak

ez ditugula maite. Horiek dira berdintasunaren izenean, eta kolore morez ageri den iruditegian erabiltzen dituzten mezueta-ko batzuk. Iragarkia ikusi eta amorrua sentitu dut. Amorrutik sentitzen dut «berdintasunaren izenean» irudi konposizio horiek emakume moderno izatearen klishea, irudia eta izatea sortzen dituztela. Bat eta bakarra.

Eta emakumeok ez gara bat eta bakar-rrak, unibertsalak, homogeneoak. Publizitate enpresak ere badabiltza jendartearen eman diren aldatetegi egokituz, beraien salmenta interesen arabera, hasiera batean ideologia patriarkalarentzat eraso bat suposatzen zuten emakume modernoaren eta askearen figura estereotipatzen. Emakumeak amak, gazteak, bulegoko idazkari

langileak, kontsumistak, gure itxura fisiokoagatik arduratuak, kirolariak, mende-baldeko herritarrik besterik ez al gara? Emakume askeak todoterrenoak ez bagara ez al dago aske izaterik?

Ba bai! Oraingoan ere ziria sartu nahi digute! Sinetsarazi aske garela jarrera eta bizi proiektu zehatz batzuk aurrera badaramatzagu. Gu, emakumeok, subjektibotasunean gara aske: lodi, argal, beltz, txuri, gazte, zahar, lesbiana, ama bakar, ama izan nahi ez dugunak, transak, eta abar. Pausoa ematea, aske eta arin sentitzea norberaren nahi eta desirari kasu eginez, ezartzen dizkiguten pauso arautu eta inposatuei iskin egitea dela pentsatzen dut. «#daelpaso» garenari, naizenari; eta nik pauso egingo dut Kaiku Sin Lactosaz. •



Mutilentzako eta neskentzako arropa eta osagarriak eskaintzen ditu Donostiako Coco denda. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti OSCAR BERIAIN

Hogei urte igaro dira Donostian Coco izeneko arropa denda zabaldu zuenetik eta etengabe bide berriak aztertzen eta probatzen aritu da Oscar Beriain San Sebastian. Azkena, Tibet eta Afganistanetik ekarritako oihalekin abiatutakoa. Artisauei zuzenean erosten die materiala, ondoren buruan duena josteko. Jantzi modernoak eta bakarrak dira emaitza.

Etxeetako teilatuak eta mendiak zuriz jantzita eta herritarrak beroki lodienak erantzi ezinik dau den egunotan, gure herri eta hirietako denda asko udaberriko arropa jasotzen hasi dira dagoeneko, baita erakusleihoetara eramaten ere. Koloreak eta oihalak erabat aldatu dira, eta manikiek ez dituzte euren gorputzak ezkututzen. Hondartza garaiak, ordea, oso urruti ikusten dira oraindik eta, uda, denboraren makinarekin etorki-

zunera bidaiatuz soilik ailegatu daitekeen urtaroa da. Denda bat dutenek, aitzitik, kostaz gozatzeko garaiak gaituzte. Eurek 2015eko udazkena eta negua dituzte buruan, dagoeneko zer eramango den eta zer ez den eramango zehaztu dute. Betebehar horren azken gauzak lotzen ari da, hain justu, Oscar Beriain San Sebastian. Koloreen artean, urdin iluna, beltza eta grisa aipatu ditu, linea zorrotzak eta jantzi sinpleak, ero-soak, baina dotoreak.

Hogei urte igaro dira Donostian Coco izeneko arropa denda zabaldu zuenetik. Hastapenetatik gaur arte garatu egin da, baina esentzian, Beriainek azaldu duenez, tendentzia prezio onean eskaintzen du. Garai onak ezagutu ditu, baita krisiak eragindako garai zailak ere, baina gogor eutsi dio. Iaz, gainera, lokal handiago bat zabaldu zuen Alde Zaharreko Fermin Calbeton kalean, eta orain bi urte dendaren baitan proiektu berri bati ekin zion: Afganistaneko eta Tibeteko oihalak erosi, eta

ondoren, bere jostunaren taillerrean, beste jantzi batzuetan txertatu. Emaitzak ikusgarriak dira, oihalen kolore biziengatik ez ezik, tailerrera sartu diren jantziek edo poltsek eta bertatik atera direnek zerikusirik ez dutelako. Pieza bereziak eta eskusiboak dira, eta jendeak asko baloratu ditu; egindako guztiak saltzen ditu. «Orain urte batzuk, arropa marka jakin bat eskaini zidaten dendan saltzeko. Jantzi haietan halako oihalak erabiltzen zituzten, baina kalitatea eta salneurriak ez zetozen bat», azaldu du idiazabaldarrak. Ideiarekin gelditu zen, eta mundu horren inguruan ikertzen jarri zen, oihalen jatorriaren inguruan, eta abar. Marka ezagun horren hornitzailea zen artisauarengana heltzea lortu zuen, eta harekin egin zuen kontaktua. «Bitartekorik gabe erostea da niretzat gauza garrantzitsuenetako bat, alegia, irabaziak pertsona horrentzat izatea, egin duenarentzat. Beste modura, prezioaren portzentaje handi bat bidean gelditzen baita». Tailer familiar batek igortzen dizkio materialak, eta ateratzen duten etekin ekonomikoa haientzat da. Onartu du kudeaketa aldrebesagoa dela: eskaera egin, garraioa, hizkuntza arazoak, baita moneta aldaketa ere, baina harremana zuzena da, eta hori asko baloratzen du. Finean, ondoren bere jantzietan txertatuko dituen oihalak nork eta non egin dituen ezagutzea gustatzen zaio. Orain bi urte egin zituen lehen jantzi haien arrakasta gogoratzen du: jertseak, galtzaren bat, kazadorak eta poltsak. «Eredu bakoitzeko neurri bat edo bi egin ditut, alde batetik, eta batez ere –azaldu du–, eskusibitatea zaindu behar delako, asko egingen badira balioa galtzen dutelako. Eta, bestetik, denbora kontuagatik ezin delako nahi adina egin». Diseinuak Beriainen sormenetik ateratzen dira. Eragin eta eragin aritzen da, atsedenerako denbora gutxiarekin. Irudi bat, une bat edo ezusteko edozer izan daiteke diseinu baten so-

rrera. Horregatik, grina eragiten dion lana alde batera uztea zaila dela onartu du, baina gustura egiten du.

Josketa lanetan, berriz, Isabel jostuna aipatu du. Hobeki esanda, goraipatu egin du. «Isabel zoragarria da, bikaina da bere lanean. Izan zuen ogibideagatik eskarmentu handia du oihal delikatuak eskuz josten, enkajea, esaterako. Gure materialak ere bereziak dira: ispilutxoak dau-de, harribitxiak... eta guzti-guztia eskuz josten du, pieza bakoitza banan-banan».

Cocoren ibilbidean Isabel «aingeru bat bezala» agertu zela dio Oscarrek, bere ustez ez delako «batere erraza jostun ona topatzea». «Guk bagenuen beste jostun bat, baina atzerrira joan zen bizitzera, eta bere lana galdu berri zuela, Isabel ezagutu nuen», kontatu du.

Orain, lanez lepo dabil, eskatutako guztia egiten. Irribarrez oroitzen ditu elkarlanaren lehen uneak, tailerrean buruan zituen ideiak azaltzen zizkionekoak eta esaten zituen «ai ene»ak. Tailerretik ateratzen diren jantzieta-ko batzuk Donostiako Cocok Marta Hernandezek Tolosan duen Mahe dendarekin eraman-ten ditu aurrera, kolaborazio moduan.

BIDAIA ABERASGARRIAK

Hurrengo proiektua martxoan abiaraziko du Beriainek: Afrikako herrialde batera doa, produktu, oihal eta material berrien bila: artilea, lumak, larrua... Halaber, bertan topatzen dituen hamaika gauza interesgarri ekarriko ditu bueltan. «Aldez aurretik ez dut ezer lotu, hegazkina baino ez. Abentura izango da. Hala ere, gaur egun, bertara joan aurretik, Interneti esker, informazio pila bat kontsultatu daiteke, baliagarriak izan daitezkeen tailerren zerrenda egin, nondik mugitu, nondik hasi... Oro har, azokak, dendak eta txokoak bisitatuko ditut», esan du.

Bidaietan erosten duena izango zaio baliagarria ondoren Donostian lana garatu ahal izateko, baina, neurri berean, ikasi eta ikusten duena ere baliotsua izango zaio, hortik ideia asko



Orrialde honetan, Cocok, ekoizpen propioaren baitan, aurreko denboraldietan Afganistan eta Tibetetik ekarritako oihalekin egin zituen jantzi eta poltsetako batzuk. COCO



atera baitaitezke. Bidaia honekin, gainera, ekoizleak ezagutu eta hauekin harremanak ehundu nahi ditu, jostunak landuko dituen materialen sarea handitu eta ekoizpena aberasteko.

Tailerrean egingo duenaz ez du xehetasun gehiago eman nahi, ezta zehazki zeren bila doan ere. Nahiago du lana amaituta duenean eman azken kolekzioaren berri, baina aperitibo gisa bai Facebook bai Instagram sare sozialen bidez aurreratu ditu udaberrirako salgai izango dituen osagarrietako batzuk.

Hurrengo neguari begira, bere ekoizpen propioari dagokionez, eraldatutako mahukak, bizkaraldeak eta larruak: azeria, untxia, bisoia eta arkumea. Jakin badaki animalien larruak aipatzea eztabaida piztea dela, baina argi utzi nahi du legearen baldintzak betetzen dituzten lekuetan erosten dituela pieza hauek, bermearekin. «Animalia ez bada abeletxean hezitakoa, eta ez badago salgai egon behar duen lekuan, ez dut erosten. Ez ditut larru basatiak onartzen, ezta hauei ematen zaizkien tratu txarrak ere. Guztia legearen barruan eta araututa dagoen merkatuaren baitan egiten dut, noski».

Momentuz, emakumezkoen jantziak eraldatzen ditu batez ere; gizonaekoei dagokienez, pixkanaka doa, bere ustez ez direlako hain ausartak. «Neskek segituan aldatzen dute modaren txipa: estua, gero zabala, forma eta estanpatu aldaketak... moda gustatzen bazaio, gustatuko zaio tendentzia dena janztea –adierazi du–. Eta honekin ez diot mutilei gustatzen ez zaienik, baina bai gehiago kostatzen zaiela». Hala ere, modak moda eta tendentziak tendentzia, Beriainek argi du ondorengo ideia: «Moda norberak bere buruari egokitu behar dio, eta ez alderantziz». Ildo horretan, ezinbestekoa da, eta gakoa dela uste du, bakoitzak hobeki doakion hura janztea, alegia, bakoitzaren ezaugarri onenak azpimarratuko dituzten jantziak edo koloreak erabiltzea. •

Oihane Larretxea de la Granja

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan sarean ibili diren hitzetariko batzuk:

> Taiwan

Gutxienez 23 pertsona hil dira Taiwanen izandako hegazkin istripuan. 15 pertsona zauritu egin dira eta hegazkinean zihoazen gainerako 20 bidaiariak oraindik ez dituzte topatu erreskate taldekoek. Zehazki, Taiwaneko Taipei hiriburuan izan da TransAsia konpainiako hegazkinaren istripua. Taiwan-ko Gobernuak jakitera eman duenez, Jilong ibaira erori da. Hegazkinaren kutxa beltzak aurkitu eta aztertzen ari dira, istripuaren zergatiak argitzeko asmoz.

> Gidaririk ez

Gidaririk gabeko autobus bat dabil La Rochelleko karriketan. Autobusaren barnean zortzi bidaiari eta operadore bat doaz, baina gidaririk ez. Momentuz, hiri frantses horretan bakarrik ikusi ahal da, baina jatorriz Ipar Euskal Herrikoa da. Zehazki, Bidarteko Euskal Kostaldea Aturriko Izarbel teknologia gunean sortu da autobus berezi hau, Robosoft enpresan, hain zuzen ere. Txinatik etorritako txasisa erabili du, baina karrzeria, robotizazioa eta mekanika Lapurdin egin dute.

> Hiru guraso

«Hiru gurasoren haurtxoa» ugalketa teknika onartu dute Erresuma Batuan. Teknika berri horren bidez, DNA kalte-tuta duen ama baten mitokondriak hartu eta emaile baten obulu osasuntsu batean sar daitezke (honen muina kendu eta gero); azkenik, aitarien espermarekin in vitro ernaltzen da. Hala, haurrak bere gurasoen informazio genetikoa jasoko du eta %0,1 edo %0,2 soilik litzateke obulua eman duen emakumearena. Mundu osoan aitzindari bihurtu da Erresuma Batua.

> Dudinka

Dudinka, 22.000 biztanleko Siberiako herria, izoztuta dago, literalki izoztuta. Errusiaren iparraldeko herriak harrituta ikusi du termometroa zero azpitik 40 gradura jaisten azken egunotan. Berez hotza gutxi ez, eta hoditeria lehertu egin denez, kaleetan metro batetik gorako izotz plaka osatu da. Izugarria. Ez da gairitu inoizko tenperatura baxuena, ikusiak baitaude termometroa zero azpitik 56,7 gradura iristen. Baina sortu den kaosa inoizko latzena izan da.

> Facebook

Facebooken pribatutasun maila ez da sekula nabarmentzeko modukoa izan, baina orain bere politika aldatu egin du, eta okerrerako. Aurrerantzean, gure pistari jarraituko dio Interneten barne, baita bere web orrialdetik kanpo gabiltzanean ere. Facebooken arrakastaren gakoa erabiltzaileei buruz pilatzen duen informazio mordoa da, iragarleen interesekoa baita. Bada, aurrerantzean, are informazio gehiago eta zehatzagoa izango du. Eta guk, pribatutasun txikiagoa.



KUTXATEKA.COM

BARREGURAREN EGUNAK

Inauteriek barregura ematen digute. Aitak bibotea margotzen digu, eta berak kapela handi bat janzten du. Belarritako eta lepoko pisutsuak janzten dizkigute, eta ezpainak gorritz margotu. Beraiek ere desberdin janzten dira. Zein guapa egoten den izeba, eta zenbat irri egiten duen. Gustatzen zaizkigu inauteriak. Mozorroarekin desberdin ikusten ditugu inguruko helduak. Baina batez ere begietan ikusten ditugu desberdin; umoretsu, alai, aske. Barruan daramatena da trapurik politena. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Ander Izagirre - @anderiza
Kazetaria

Selfikrazia

Ez dut gustuko gailurretan bozkarioz zoratzea. Ba al zenekien ez dagoela Edmund Hillary 1953an lehenengo aldiz Everesteko tontorrera igo zeneko argazkirik?», Nives Meroi alpinista italiarraren hitzak dira, Erri de Lucak idatzi zuen «Sulla traccia di Nives» liburukoak. «Hillaryk kamera bat zeraman eta tontorrean Tenzing Norgay sherpari argazkia atera zion, inguruko mendien irudiak hartu zituen, baina ez zion Tenzingi eskatu argazki bat atera ziezaion. Ez al da deigarria? Niretzat, atera ez zuten argazki hura da argazkietan ederrena, egindako lanari lehentasuna ematen diona, eta ez lanaren egileari. Metro eta laurogeita hamabi zentimetro neurtzen zituen zeelanda berritar hezurtsu hark ez zuen bere buruaren argazkirik nahi izan, Everesteko tontorrera iritsitako lehenengo gizakiak bihurtu zirenean. Hori, niretzat, irakaspén handia da».

Himalaiara joaten ziren lehenengo espedizioek asteak behar zituzten berriak bidaltzeko: menditik jaitsi, oinarritzko kanpalekuan testuak idatzi eta mezulariei ematen zizkieten, haraneraino korrika joan eta telegrafoz bidal zituzten. Himalaiara joateko eta Himalaiatik itzultzeko, hilabeteak pasatzen zituzten barkuz, trenez, oinez, denbora soberan zuten pentsatzeko. Eta bide haietatik mendiko literaturaren maisulanak etorri ziren, mantso, luze. Egungo espedizioek berehalako mezuak bidal ditzakete eta askotan emozio eztandak besterik ez dira. Gogoeta mantsoak landu gabe, nahikoa da oihua. Esperientzia bat osorik bizitzeko eta sakon dastatzeko gai al gara orain, erakusteko eta zabaltzeko premiagatik esperientzia hori eten gabe?

Manifestazio jendetsua antolatu zuen aurreko larunbatean Podemos alderdiak Madrilen. Pablo Iglesiasek arrazoi berezi bat azaldu zuen deialdia zabaltzeko: «Ez dugu ezeren kontra protesta egin nahi, ez diegu ezer eskatuko, denbora agortzen ari zaiela eta

herri honek Gobernu duin bat merezi duela esango diegu bakarrik. Urtarrilaren 31ko martxa argazki historiko bat izango da, seme-alabei, bilobei erakusteko modukoa. Zatozte manifestaziora eta etorkizunean 'ni han izan nintzen' esan ahalko duzue».

Lekuetara joan, han egon zinela kontatzeko. Azkarra da Pablo Iglesias, gure garaiko joeraz jabetzeko: argazkia ez da honezkero gertakaria memorian gordetzeko modua, argazkia bera da gertakari. Alferrik da inon egotea, argazkirik ez badago. Alferrikakoa da ekitaldi bat, atze-oihal bezala ez badu balio, jendeak bere buruaren argazkiak atera ditzan. Roberto Valencia kazetari gasteiztarrak, duela urte askotatik El Salvadorren lan egiten duenak, hauxe aipatu zidan gai honen harira: «El Salvadorreko 1992ko bake itunaren argazki historikoaz tes-

tu bat idatzi nuen, eta berrargitaratzen dugun bakoitzean, komentario mordo bat uzten dituzte 'ni egun hartan han nengoen' esateko».

Esango nuke 1992tik aurrera egoak aurrera egin duela nabarmen. Lehen planoraino. Orain, argazki historikoa guk geuk hartutakoa dela sinetsi nahi dugu. Ekitaldi historikoa atze-oihala da gure egoa aurrean jartzeko. Agian kontua puzten ari naiz. Baina ez gehiegi. Grazia egiten dit hainbat jendek Facebooken irudi berezi, deigarri, interesgarriak jartzeko duen moduak: «Begira, ostruka bat ikusi dugu parkean!». Eta argazkian tipoa bera agertzen da, lehenengo planoan, kamerari begira, irribarre eginez, eta atzean, iskin batean, ostruka. Egoa ebaki bagenio, ez zen txoririk izango. •

www.anderiza.com



Selfikraziaren garaian, argazki historikoa guk geuk hartutakoa dela sinetsi nahi dugu.

IZAGIRRE

3 BEGIRADA:

osasuna / hiriaren lo(r)aldia / komunikazioa

GARA URTEKARIA

2014

EUSKAL HERRIAREN ESKU

URTE BATEKO GERTAERAK

Gure Esku Dago, **EPPK**-ren ekimenak, **desarmerantzko urratsak**, ETA eta NEB, herri harresiak, **makroepaketak**, Sare, Nafarroako erregimenaren krisialdia, hauteskundeak **Ipar Euskal Herrian**, biktimak, **Eskozia eta Katalunia**, enpresen itxierak, **Kutxabank**-en pribatizazioa, sindikatuak eta patronala, **euskara**, leus domeinua, **euskal zinema**, munduko **futbol** txapelketa eta euskal kirol guztia...

KONTAKIZUNAK
LEHEN ORRIALDEAK
GRAFIKOAK
KRONOLOGIAK
DOKUMENTUAK
AGIRIAK
ESTATISTIKA
ANALISIAK
ARGAZKIAK
KRONIKAK
UMOREA



**Otsailaren
14 eta 15ean,
larunbata eta igandea**

11,95 €
soilik

**HARPIDECOUNTZAKO
ESKANTZA BEREZIA!**

8,95 €

Erreserbata zure alen astnarteko
(otsailak 10) 15:00ak baino lehen,
94.424.55.56 telefonari edo igorri digun
e-mailari erantzungo. Etxera bidaltzeko diruzko
bitartekoa gastezuzko gabe.

